2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

06 Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna

Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

BRTA

SPRI Taldea
Grupo SPRI

EEE Taldea
Grupo EVE

AZPILUR Taldea
Grupo AZPILUR

URA

IHOBE

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urria / 1a, octubre 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

06-INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
06-INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD 7

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas 8

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos 78

4421 Ingurumenaren Babesa
Protección del Medio Ambiente 79

5121 Uraren Plangintza eta Administrazioa
Planificación y Administración Hidráulica 86

5413 Teknologia
Tecnología 87

5414 Berrikuntzarako Funtsa
Fondo de Innovación 90

5415 Eraldaketa Digitala eta Ekintzailetza Berritzaile
Transformación Digital y Emprendimiento Innovador 91

7211 Industria, Tran. Energ. eta Jasan. Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Industria, Tansición Energética y Sostenibilidad 93

7212 Industria Garapena
Desarrollo Industrial 97

7213 Industria Segurtasuna
Seguridad Industrial 101

7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia
Innovación y Estrategia de Competitividad 103

7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena
Política y Desarrollo Energético y Minero 105

7613 Nazioartekotzea
Internacionalización 109

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos 110

4421 Ingurumenaren Babesa
Protección del Medio Ambiente 111

5413 Teknologia
Tecnología 112

5415 Eraldaketa Digitala eta Ekintzailetza Berritzailea
Transformación Digital y Emprendimiento Innovador 113

7211 Industria, Tran. Energ. eta Jasan. Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad 114

7212 Industria Garapena
Desarrollo Industrial 115

7213 Industria Segurtasuna
Seguridad Industrial 116

7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena
Política y Desarrollo Energético y Minero 117

7613 Nazioartekotzea
Internacionalización 118

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos ... 119

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos ... 126

EAEKO SEKTORE PUBLIKOAREN PARTZUERGOAK
CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE ... 128

Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa
Consorcio Científico-Tecnológico Vasco ... 129

ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS ... 154

SPRI Taldea
Grupo SPRI ... 155

SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia
SPRI - Agecia Vasca de Desarrollo Empresarial ... 156

Teknologi Elkartegia SA
Parque Tecnológico, S.A. ... 185

Arabako Teknologi Elkartegia SA
Parque Tecnológico de Álava, S.A. ... 208

Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA
Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa ... 229

Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Gestioa SA
Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, S.A. ... 250

Arabako Eraberrikuntza Industrialdea SA
Centro de Empresas e Innovación de Álava, S.A ... 267

Nazioartekotze Taldea
Grupo de Internacionalización ... 286

Nazioartekotzeko Euskal Agentzia
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia ... 287

USA Basque Trade and Investment
USA Basque Trade and Investment ... 308

Singapore Basque Trade and Investment
Singapore Basque Trade and Investment ... 324

Basque Trade e Investimento do Brasil
Basque Trade e Investimento do Brasil ... 340

Energiaren Euskal Erakunde Taldea
Grupo Ente Vasco de la Energia ... 356

Energiaren Euskal Erakundea
Ente Vasco de la Energia ... 357

CADEM SA
CADEM, S.A. ... 385

Euskadiko Hidrokarburoak Sozietatea SA
Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A. ... 403

BIMEP SA
BIMEP, S.A. ... 418

HARANA -KONTRASTA SA
HARANA-KONTRASTA, S.A. ... 436

AZPILUR Taldea
Grupo AZPILUR ... 450

AZPILUR SA
AZPILUR, S.A. *451*

Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea SA
Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea, S.A. *475*

Busturialdeko Industrialdea SA
Busturialdeko Industrialdea, S.A. *492*

Beterri-Kostako Industrialdea SA
Beterri-Kostako Industrialdea, S.A. *508*

Deba Bailarako Industrialdea SA
Deba Bailarako Industrialdea, S.A. *526*

Arabako Industrialdea SA
Arabako Industrialdea, S.A. *545*

Arratiako Industrialdea SA
Arratiako Industrialdea SA *563*

Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA
Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A, ... *580*

Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA
Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A. *598*

Goierri Beheko Industrialdea SA
Goierri Beheko Industrialdea, S.A. *614*

Urolako Industrialdea SA
Urolako Industrialdea, S.A *632*

Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, S.A. *649*

Uraren Euskal Agentzia
Agencia Vasca del Agua *667*

IHOBE SA
IHOBE, S.A. *688*

06-INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

06-INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak euskal industriaren etorkizuneko oinarriak ezartzeko erronka ezarri du. Jauzi kualitatibo bat eman behar dugu eraldaketa handiek eta, bereziki, energetikoak eta digitalak sortzen dituzten aukeretatik abantaila izateko.

ITEJek gobernu-programaren lehen hiru ekintza-ardatzetan jasotako helburuak lortzera bideratutako jarduera-ildoak eta ekintzak bultzatzen ditu:

- Pertsonak erdigunean: erronka soziodemografiko, energetiko-ekologiko eta teknologiko-digital hirukoitzari aurre egitea.
- Hazkunde- eta ongizate-eredua: lankidetza publiko-pribatuaren esparruan, Euskadiren industria sendotzeko baldintzak sustatzea, besteak beste, ekonomia berriak industria-sare moderno, dinamiko, garatu eta iraunkor bat bultzatzeko eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatuz.
- Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna: euskal produkzio-sektoreak trantsizio ordenatua eta koordinatua behar du, ezarritako helburuak lortuta gure etorkizuna arriskuan jartzea saihestuko duena.

Ildo horiekin bat etorriz, ITEJak hiru ekintza-zutabe ezartzen ditu: (1) industria gehiago sortzea; (2) industria hobea gaitzea; eta (3) emisioak murriztea. Zutabe horien barruan, hainbat helburu estrategiko daude, besteak beste:

- Euskadi 2030 Industria Plana inplementatzea.
- 1,25 Mn m² lurzoru industrial jartzea enpresen eskura.
- Teknologia-parkeen azalera 2,5 milioi m2 handitzea.
- I+G+b sustatzea hainbat neurriren bidez eta urteko inbertsioa gutxienez % 6an mantenduz.
- Energia berriztagarrietako partaidetza handitzea.
- Deskarbonizazioa eta eraginkortasun energetiko industriala bultzatzea.
- Autokontsumoa sustatzea industria- eta etxe-autohornidurarako.

El departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad (ITES) del Gobierno Vasco se marca el reto de sentar las bases de la industria vasca del futuro. Tenemos que dar un salto cualitativo para tomar ventaja de las oportunidades que generan las grandes transformaciones, y, en especial, la energética y la digital.

ITES impulsa líneas de actuación y acciones enfocadas en la consecución de objetivos contenidos en los tres primeros ejes de acción del programa de gobierno:

- Las personas en el centro: hacer frente al triple reto sociodemográfico, energético-ecológico y tecnológico-digital.
- Modelo de crecimiento y bienestar: propiciar, en un marco de colaboración público-privado, las condiciones para favorecer la industria de Euskadi aprovechando, entre otras cuestiones, las oportunidades que nos ofrece la nueva economía para favorecer un tejido industrial moderno, dinámico, desarrollado y sostenible.
- Transformación energética y sostenibilidad: el sector productivo vasco requiere una transición ordenada y coordinada, que, alcanzando los objetivos fijados, evite poner en riesgo nuestro futuro.

Como tal, y en consonancia con dichas directrices, ITES se establece tres pilares de acción: (1) crear más industria; (2) habilitar una mejor industria; y (3) reducir las emisiones. Dentro de dichos pilares, se contienen varios objetivos estratégicos, entre los cuales destacan:

- Implementar el Plan de Industria-Euskadi 2030.
- Poner 1,25 Mn de m² de suelo industrial a disponibilidad de las empresas.
- Aumentar la superficie de los Parques Tecnológicos en 2,5 millones de m2.
- Promover el I+D+i a través de diferentes medidas y manteniendo la inversión anual en, al menos, un 6%.
- Aumentar la participación en las energías renovables.
- Impulsar la descarbonización y la eficiencia energética industrial.
- Promover el autoconsumo para el autoabastecimiento industrial y doméstico.

Gure helburua, herrialde gisa, Europako eta munduko ekonomiaren ziurgabetasun-egoerara egokitzea da, behar adinako aurrerapenarekin eta plangintzarekin.

Mario Draghik Europako Batzordearentzat egindako txostenean ohartarazi duenez, Europar Batasunak erronka existentzial bati egin behar dio aurre: nahiz eta planetako eskualde berritzaile, seguru eta oparoenetako bat izan, atzean geratzen ari da Estatu Batuekiko, eta Txinarekiko lekua galtzen ari da. Erronka horri erantzuteko, estrategia industrial bat behar da, karbono gutxiko ekonomia lehiakor baterantz igarotzeko aukera emango duena.

Euskadin, lehiakortasun ekonomikoa bultzatzea ere bada gure helburua, eraldaketa energetiko eta digitaleko estrategia bikoitzari erantzunez. Datozen eraldaketa handien aurrean, jakin behar dugu oraindik ere hobetzeko tarte handia dugula, eta ezin garela atzean geratu, bai produktibitateari dagokionez, bai berrikuntzari dagokionez, Europa mailan.

Baina, ez gara hutsetik hasiko, oinarri ona dugu: ezagutza, gaitasun teknologiko-industrialak eta lankidetza publiko-pribatuko eredu bat.

Horretan oinarrituta, euskal «industry deal-a» bultzatzen ari gara, jauzi kualitatibo bat emateko eta Euskadi Europako berrindustrializazioaren aitzindaritzat kokatzeko. Euskadi 2030 Industria Planak enpresa-, teknologia-, zientzia- eta finantza-sarea hartzen du, erakundeen, klusterren eta gizarte-eragileen laguntzarekin batera.

Sail hau lankidetzan arituko da Ogasun eta Finantza Sailarekin, industria-politika lantzeko finantza-tresnak sustatzeko. Lan egingo dugu eskura ditugun baliabideen zati bat industria-proiektu berriak sortzera, etorkizuneko enpresa-ekimenen hazkundeari laguntzera eta Euskadin liderrak diren enpresak errotzera bideratzeko.

Horretarako, baliabide publikoak batu behar dira ekimen pribatuarekin eta finantza zein inbertsio-gaitasuna duten eragileekin, hala nola banku-fundazioekin, family office-ekin, BGAEekin edo Euskadiko banku-sektorearekin.

Euskadik Europako hegoaldean inbertitzeko herrialde erakargarri gisa duen posizionamenduaren buru ere izan behar du. Erronka horrek guztioi eragiten digu.

Bestalde, sail honek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailarekin batera lan egingo du. Jauzi kualitatibo ekonomiko-teknologiko-industriala emateko, funtsezkoa da gure ekosistema zientifikoa eta teknologikoa indartzea, industria-inbertsio berriak erakartzeko eta industria berria sortzeko palanka gisa.

Ekonomia dinamikoago eta irekiago baterako baldintzak sortzea eta ekimenak garatzea da helburua. Jauzi kualitatiboa egin behar dugu Euskadiren eraldaketa teknologikoan eta industrialean.

Industria gehiago

Nuestro objetivo como país es adaptarnos, con suficiente antelación y planificación, al escenario de incertidumbre en el que se encuentra la economía europea y mundial.

Mario Draghi advierte en su informe elaborado para la Comisión Europea que la Unión Europea se enfrenta a un desafío existencial: aun siendo una de las regiones más innovadoras, seguras y prósperas del planeta, se está quedando rezagada con respecto a Estados Unidos y perdiendo terreno con China. Este reto reclama como respuesta una estrategia industrial que permita transitar hacia una economía competitiva y baja en carbono.

En Euskadi nuestra meta también es impulsar la competitividad económica respondiendo a la doble estrategia de transformación energética y digital. Ante las grandes transformaciones que se avecinan, debemos ser conscientes de que aún tenemos gran margen de mejora; y que no podemos quedarnos rezagados, tanto en productividad como en innovación a nivel europeo.

Pero no empezamos desde cero, contamos con una buena base: conocimiento, capacidades tecnológico-industriales y un modelo de colaboración público-privado.

En base a esto, estamos impulsando la nueva «industry deal» vasca para dar un salto cualitativo y posicionar a Euskadi como punta de lanza de la reindustrialización en Europa. El Plan de Industria-Euskadi 2030 implica al tejido empresarial, tecnológico, científico y financiero, junto con el apoyo de instituciones, clústeres y agentes sociales.

Este Departamento colaborará con el Departamento de Hacienda y Finanzas en la promoción de instrumentos financieros para la elaboración de la política industrial. Trabajaremos para canalizar parte de los recursos disponibles a generar nuevos proyectos industriales, apoyar el crecimiento de iniciativas empresariales de futuro y arraigar las empresas líderes en Euskadi.

Esto depende de acertar a sumar los recursos públicos con la iniciativa privada y los agentes que demuestran capacidad financiera y de inversión como las fundaciones bancarias, family offices, las EPSV o el sector bancario de Euskadi.

Euskadi debe liderar también su posicionamiento como un País atractivo para la inversión en el sur de Europa. Este es un reto que nos interpela a todas y todos.

Por otro lado, este departamento trabajará conjuntamente con el departamento de Ciencia, Universidades e Innovación. Para dar un salto cualitativo económico-tecnológico-industrial, es fundamental fortalecer nuestro ecosistema científico y tecnológico como palanca de atracción de nuevas inversiones industriales y crear nueva industria.

El objetivo es crear las condiciones y desarrollar iniciativas para una economía más dinámica y abierta. Tenemos que dar un salto cualitativo en la transformación tecnológica e industrial de Euskadi.

Más Industria

Industriak eta lotutako zerbitzu aurreratuek Euskadiko BPGaren % 40 osatzen dute, baina gizartean gertatzen ari diren aldaketak azkarrak eta erabakigarriak izaten ari dira; aldaketa horiek eskatzen dute Euskadi erne egotea eta egokitzea, paradigma berri horri aurre egiteko beharrezkoak diren ekintzak eginez.

Industria-akordio handi bat behar dugu, zeharkako «industry deal» bat. Horretarako, eraldaketa hori ahalbidetuko duten hainbat helburu/palanka identifikatu ditugu.

Euskadi 2030 Industria Plana inplementatzea, herrialde-ikuspegian oinarrituta eta hainbat eragilerekin lankidetzan, ETEak bereziki nabarmenduta. Programa horren bektoreak teknologia, berrikuntza, azpiegiturak, jasangarritasuna, ekintzailetza, esportazioak, finantzaketa eta pertsonen kudeaketa dira, besteak beste, industriaren ikuspegi sozial berri batekin.

Enpresen nazioartekotzea bultzatzea, Euskadiko nazioarteko sarea indartuz eta atzerriko bulegoek enpresa txiki eta ertainei lagunduz, esportazioetan, inbertsioen erakarpenean edo nazioarteko hedapenean lagunduz.

Inbertsio finantzarioko euskal ekosistema mobilizatuko dugu, hazteko eta enpresak errotzeko eragiketa industrial eta teknologikoei ekiteko.

Herrialde honetarako funtsezkotzat jotzen diren enpresen aurrerapena, hazkundea, sustraitzea eta trakzioa bultzatuko ditugu.

Industria-lurzatiak berreskuratzea: industria-azpiegitura eta kokaleku berriak sustatuko ditugu, lurzoruak leheneratzeari lehentasuna emanez.

Industria hobea

Industria gehiago sortzea lortu arren, industria horrek zenbait baldintza bete behar ditu. Hazkunde horrek gure industria are hobea izatea eskatzen du. Horretarako, ezinbestekoa da Berrikuntza, non Euskadik apustu argia egiten duen eta bere nortasun-ezaugarrietako bat den, gure herrialdea haren nazioarteko polo gisa ezarriz.

Datozen hamarkadetan, Euskadiko ekoizpen-sarea errotik aldatuko da. Garapen teknologikoa, berrikuntza eta espezializazio adimenduna ezinbestekoak izango dira enpresen lehiakortasuna bermatzeko, eta ITEJek eraldaketa hori babesteko konpromisoa hartzen dugu.

Europako Batzordeak dagoeneko Euskadi «strong innovator» tzat jotzen badu ere eta Estatu mailan lidergo-jarrera badugu ere, ITEJek Euskadi Europa mailan «innovation leader» bihurtzeko aukera emango duten helburuak ezartzen ditu.

La industria y los servicios avanzados conexos suponen el 40% del PIB de Euskadi, pero los cambios que están teniendo lugar en la sociedad están siendo rápidos y determinantes; éstos exigen que Euskadi esté alerta y se adapte, tomando las acciones necesarias para hacer frente a este nuevo paradigma.

Necesitamos un gran acuerdo industrial, un «industry deal» transversal y exhaustivo. Para ello, identificamos diferentes objetivos-palanca que posibilitarán dicha transformación.

Implementar el Plan de Industria-Euskadi 2030, en base a una visión de país y en colaboración con diferentes agentes, con un énfasis especial en las PYME. Los vectores de dicho programa son la tecnología, la innovación, las infraestructuras, la sostenibilidad, el emprendimiento, las exportaciones, la financiación y la gestión de personas con una nueva visión social de la industria, entre otros.

Impulsar la internacionalización de las empresas mediante el fortalecimiento de la red internacional de Euskadi y el apoyo por parte de nuestras oficinas en el extranjero a pequeñas y medianas empresas, ayudando así en las exportaciones, la atracción de inversiones o la expansión internacional.

Movilizaremos el ecosistema vasco de inversión financiera para abordar operaciones industriales y tecnológicas de crecimiento y arraigo empresarial.

Impulsaremos inversiones estratégicas que garanticen el progreso, crecimiento, arraigo y tracción de las empresas consideradas clave para este País.

Recuperar parcelas industriales: promoveremos nuevas infraestructuras industriales y emplazamientos, priorizando la recuperación de suelos.

Mejor Industria

Aun logrando crear más industria, ésta debe cumplir ciertas condiciones. Este crecimiento requiere que nuestra industria sea aún mejor. Para ello es imprescindible la Innovación, en la cual Euskadi hace una clara apuesta y es una de sus señas de identidad, estableciendo a nuestro país como un polo internacional de la misma.

En las próximas décadas se llevará a cabo una profunda transformación del tejido productivo de Euskadi. El Desarrollo Tecnológico, la innovación y la especialización inteligente serán imprescindibles para garantizar la competitividad de las empresas, y desde ITES nos comprometemos a apoyar esta transformación.

Si bien Euskadi ya es calificado por la Comisión Europea como un «strong innovator» y contamos con una posición de liderazgo a nivel estatal, ITES se establece metas que permitan a Euskadi convertirse en «innovation leader» a nivel Europeo.

Ikerketaren eta berrikuntzaren garapena sustatzea: Eusko Jaurlaritzaren I+G+b politiken aurrekontu-inbertsioa gutxienez % 6 handitzeko konpromisoa hartzen dugu legegintzaldian zehar, ikerketara eta berrikuntzara bideratutako inbertsioen bolumena handitzeko, arreta berezia jarriz ETE txikietan. Era berean, BRTA (Basque Research and Technology Alliance) aliantza indartzen lagunduko dugu, nazioartean duen posizionamendua hobetzeko, ezagutza sortzeko eta transferitzeko.

Promover el desarrollo de investigación e innovación: Nos comprometemos a incrementar la inversión presupuestaria en políticas de I+D+i del Gobierno Vasco en al menos un 6% anual a lo largo de la legislatura, haciendo así posible que crezca el volumen de inversiones orientadas a la investigación y la innovación y con un foco especial en pequeñas PYMES. Así mismo, ayudaremos a fortalecer la alianza BRTA (Basque Research and Technology Alliance) para mejorar su posicionamiento internacional, generar conocimiento y transferirlo.

Ekintzailetza eta startup-ak indartzea: oinarri teknologikoko startup berriak sortzen lagunduko dugu, horiek baitira gure enpresa-sarearen hazkundearen zutabeetako bat. startup eta enpresa sortu berrien inbertsioak bultzatuko ditugu.

Fortalecer el emprendimiento y las startups: Ayudaremos a crear nuevas startups de base tecnológica, las cuales son uno de los pilares del crecimiento de nuestro tejido empresarial. Potenciaremos las inversiones en startups y empresas de nueva creación.

Euskadiko teknologia-parkearen azpiegiturak garatzea eta enpresa-proiektu berriak erakartzeko eta ezartzeko prest egotea lortzea. Horretarako, behar diren eraikinak eraikitzeaz gain, konektagarritasuna, jasangarritasuna eta balio erantsiko beste zerbitzu batzuk eskainiko ditugu.

Desarrollar las infraestructuras del parque tecnológico de Euskadi y hacer que estén preparadas para la captación e implantación de nuevos proyectos empresariales. Para ello, además de la construcción de los edificios necesarios, ofreceremos conectividad, sostenibilidad y otros servicios de valor añadido.

2030 Eraldaketa Digitalerako Estrategia: gaitasun digitalak sustatu nahi ditugu, eraldaketa digitalaren arrakastaren zati handi bat pertsonengan zentratzen baita. Digitalizazio-prozesuak bizkortzen lagunduko diegu ETE-ei, eta orientazio espezializatua emango diegu eskura dauden programa publiko guztiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Transformación Digital 2030: Queremos fomentar las competencias digitales, ya que gran parte del éxito de la transformación digital se centra en las personas. Ayudaremos a las PYME a acelerar los procesos de digitalización, proporcionando una orientación especializada para sacar el máximo partido a todos los programas públicos disponibles.

Adimen artifizialeko soluzioak garatzen lagunduko dugu, eta enpresek ezartzea eta erabiltzea erraztuko dugu, azpiegitura seguruak sortuz eta datuak biltegiratuz..

Facilitaremos el desarrollo de soluciones de inteligencia artificial y su implantación y uso por parte de las empresas, creando infraestructuras seguras y almacenajes de datos.

5G komunikazio-azpiegituren garapena zabalduko dugu, enpresen erabilerarako estaldura eta zerbitzu zabala lortzeko.

Extenderemos el desarrollo de infraestructuras de comunicación 5G para conseguir una cobertura y servicio amplio para el uso de las empresas.

Emisio gutxiago

Autonomia energetikoa behar estrategikoa da Europarentzat eta Euskadirentzat errealitate geopolitiko berriaren aurrean. Ildo horretatik, beharrezkoa da gure produkzio-sarean erregai fosilekiko mendekotasunaren murrizketa bizkortzea, eta hori guztia lehiakortasunik galdu gabe, industria ahuldu gabe eta enplegua arriskuan jarri gabe.

Honako hauek dira Deskarbonizazioko Zuzendaritzaren jarduketak arlo horretan baldintzatzen dituzten ardatzak: eraginkortasun energetikoa, elektrifikazioa, energia berriztagarriak eta hidrogeno berdeari eta erregai berriztagarriei lotutako beste azpiegitura batzuk, besteak beste. Halaber, honako tresna hauetan oinarritzen da: otsailaren 21eko 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, eta otsailaren 8ko 1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa. Horiek guztiak Euskadi 2030 Industria Planetik eratorritako jarduketekin garatzen eta osatzen dira.

Menos Emisiones

La autonomía energética es una necesidad estratégica para Europa y Euskadi ante la nueva realidad geopolítica. En este sentido es preciso acelerar la reducción de la dependencia de los combustibles fósiles en nuestro tejido productivo, y todo ello sin perder competitividad, debilitar la industria ni poner en riesgo el empleo.

Los ejes que condicionan las actuaciones de la Dirección de Descarbonización en esta área son: la eficiencia energética, la electrificación, las energías renovables y otras infraestructuras ligadas al hidrógeno verde y los combustibles renovables entre otros. Asimismo, se apoya en los siguientes instrumentos: la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca y la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático, que se desarrollan y complementan con las actuaciones derivadas del Plan de Industria-Euskadi 2030.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak jasangarritasun energetikoaren esparru juridikoa ezartzen du, bai EAEko administrazio publikoen eremuan, bai sektore pribatuarenean. Bientzat, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko, eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriak bultzatzera bideratutako betebeharrak eta obligazioak ezartzen ditu.

Azkenik, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legeak 4/2019 Legea osatzen du sektore pribatuaren eremuan, eta esparru juridiko egonkor bat ezartzen du Euskadin beranduenez 2050ean klima-neutraltasuna lortzeko, jarduera sozio-produktiboa deskarbonizatuz, ekonomia zirkularrerako trantsizioa eginez eta klima-aldaketara egokituz.

Europako Industria Itun Garbiak (2025eko otsaila) deskarbonizazioa Europako industriaren hazkundearen motor indartsu gisa kokatzen du, batez ere, elkarrekiko estu lotutako bi sektoretan zentratuta: alde batetik, energia kontsumo handiko industriak, deskarbonizatzeko eta elektrifikatzeko premiazko laguntza behar dutelako; eta bestetik, teknologia garbiak, etorkizuneko lehiakortasunerako eta hazkunderako eta industria eraldaketarako eta zirkulartasuna bultzatzeko funtsezkoak direnak.

Industria eta gizarte moderno batek jasangarriak izan behar dute, bestela nekez biziraungo dute. Beharrezkoa da ingurumen- eta energia-irizpideak politika sektorial guztietan integratzea, ez betebehar gisa, baizik eta gure industriari balio erantsia sortzeko lehia-faktore gisa, eta bi aldeek herritarrei eta enpresei mesede egiten dien erronka partekatu hori gizarteratu behar dute.

Esparru horretan, Euskadi 2030 Industria Plana funtsezko tresna da, trantsizio energetikotik eta eraldaketa digitaletik eratorritako euskal industriaren egungo erronkei, Europako autonomia estrategikoa indartzeko beharrari eta lehia global gero eta handiagoari aurre egiteko.

Industria-politikak maila globalean areagotu direla ikusten da, funtsezko hiru zutabetan zentratuta: Autonomia Estrategikoa: Euskadiren barne-gaitasuna indartzea, sektore estrategikoetan kanpoko iturriekiko mendekotasuna murriztuz. Digitalizazioa: Euskal industria modernizatzea teknologia digitalak integratuz, lehiakortasuna eta erresilientzia hobetuz. Deskarbonizazioa: Euskal industria eredu jasangarri baterantz eraldatzea autonomia energetikoa irabazten duena eta CO2 emisioak murrizten dituena (eraginkortasun energetikoa, elektrifikazioa, energia berriztagarriak eta hidrogeno berdeari eta erregai berriztagarriei lotutako beste azpiegitura batzuk, besteak beste).

Lehentasun estrategikoak ondorengoak dira: 3.1 «Industria-jarduera deskarbonizatzea, lehiakortasuna mantenduz», 3.3 «Energia berriztagarri propioen sorkuntza sustatzea» eta 3.4 «Sare elektrikoaren gaitasuna eta malgutasuna handitzea». Horiek guztiak zuzenean eragiten dute zuzendaritza honek trantsizio energetikoaren esparruan duen eskumenean.

A su vez, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca establece el marco jurídico de la sostenibilidad energética, tanto en el ámbito de las administraciones públicas vascas como en el del sector privado. Para ambos articula deberes y obligaciones orientados al impulso de medidas de ahorro y eficiencia energética, y de promoción e implantación de energías renovables.

Por último, la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático, complementa la Ley 4/2019 en el ámbito del sector privado y establece un marco jurídico estable para alcanzar la neutralidad climática en Euskadi a más tardar en el año 2050 mediante la descarbonización de la actividad socio-productiva, la transición a una economía circular y la adaptación al cambio climático.

El Pacto Industrial Limpio Europeo (febrero de 2025) sitúa la descarbonización como un potente motor de crecimiento de la industria europea centrado principalmente en dos sectores estrechamente relacionados: las industrias de gran consumo de energía, por necesitar ayuda urgente para descarbonizarse y electrificarse; y las tecnologías limpias, que son fundamentales para la competitividad y el crecimiento futuros, y cruciales para la transformación industrial y el impulso a la circularidad.

Una industria y una sociedad modernas tienen que ser sostenibles, si no, difícilmente sobrevivirán. Es necesario integrar los criterios ambientales y energéticos en todas las políticas sectoriales, no como una obligación, sino como un factor competitivo para generar valor añadido a nuestra industria, y socializar este reto compartido que beneficia por ambas partes a ciudadanía y empresa.

En este marco, el Plan de Industria - Euskadi 2030 se posiciona como una herramienta clave para afrontar los retos actuales de la industria vasca derivados de la transición energética y la trasformación digital, la necesidad de fortalecer la autonomía estratégica europea y la creciente competencia global.

Se observa una intensificación de las políticas industriales a nivel global, centradas en tres pilares fundamentales: Autonomía Estratégica: Fortalecimiento de la capacidad interna de Euskadi reduciendo la dependencia de fuentes externas en sectores estratégicos. Digitalización: Modernización de la industria vasca mediante la integración de tecnologías digitales, mejorando su competitividad y resiliencia. Descarbonización: Transformación de la industria vasca hacia un modelo sostenible que gana en autonomía energética y reduce las emisiones de CO2 (eficiencia energética, electrificación, energías renovables y otras infraestructuras ligadas al hidrógeno verde y los combustibles renovables entre otros).

Las prioridades estratégicas 3.1 «Descarbonizar la actividad industrial manteniendo la competitividad», 3.3 «Promover la generación de energías renovables propias» y 3.4 «Incrementar la capacidad y flexibilidad de la red eléctrica» inciden directamente en la competencia de esta Dirección dentro del ámbito de la Transición Energética.

Deskarbonizazioari dagokionez, azpimarratzen da da EAEko industriak murriztu egin behar duela inportatutako erregai fosilen mendekotasuna, bai eta berotegi-efektuko gasen emisioa ere, bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe. Lehentasun horrek teknologia garbien aplikazioa, prozesuen elektrifikazioa, energia berriztagarria sortzea, hidrogeno berdearen erabilera eta efizientzia energetikoa sustatzen ditu industria-sektore intentsiboetan, jasangarritasuna eta enpleguari eustea, inbertsioa eta gure enpresen nazioarteko posizionamendua uztartuz.

Energia berriztagarriaren sorkuntzari dagokionez, argi dago EAEko industriak energia-hornidura egonkorra, lehiakorra eta deskarbonizatua behar duela. Lehentasun horren helburua da sorkuntza banatua, autokontsumo kolektiboa, industria-lurzoruko energia berriztagarrien proiektuak eta ekoizpen-prozesuetan berriztagarrien zuzeneko erabilera bultzatzea. Lehiakortasuna indartu eta kanpoko ahuleziak murriztuko dituen subiranotasun energetiko industriala eraiki nahi da.

Azkenik, eta sare elektrikoei dagokienez, industria-prozesuen elektrifikazioak eta energia berriztagarrien garapenak sare elektriko sendoagoak, adimentsuagoak eta ekoizpen- eta kontsumo-modu berrietara egokituagoak behar dituztela egiaztatu da.

Deskarbonizazio Zuzendaritzak Planaren proiektu eraldatzaile hauetan eragin zuzena du: Energia Berriztagarrien Garapena, EAEko sare elektrikoen plangintza, Grd4Industry, Deskarbonizazio Harana eta erregai berriztagarrien Hub-a.

Energia Berriztagarrien Garapena. Berezko energia berriztagarrien sorrera eta klima-aldaketara egokitzea sustatzea. Ildo horretatik, tresna garrantzitsua izango da helburu hori lortzeko, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (2026aren amaierarako onartzea aurreikusten da).

Euskal sare elektrikoak planifikatzea. EAEri azpiegitura elektriko bat ematea, enpresa- eta industria-sarearen eta gizarte osoaren beharrekin bat datorrena, trantsizio energetikoaren testuinguruan.

Grid4Industry. Sare elektrikoen teknologia garatzea, eduki berritzailearekin.

Deskarbonizazio-harana. EAEko industria-ehuna deskarbonizatzea, bereziki elektrifikazio zaileko sektoreetan (Hard to Abate), Hard To Zero proiektuaren barruan hodi-sare bat hedatuz EAEko industria-polo nagusiak hidrogeno berdea ekoizteko zentroekin lotzeko, bai eta CO2 harrapatzeko, eroateko, biltegiratzeko eta erabiltzeko gaitasunak garatzeko ere.

Hub erregai berriztagarriak. Balioa sortzeko polo bat sortzea, hidrogenoaren eta erregai berriztagarrien inguruko ekosistema teknologiko industrial bat garatzeko.

En relación con la descarbonización se indica que la industria vasca debe reducir la dependencia en los combustibles fósiles importados así como sus emisiones de gases de efecto invernadero sin comprometer su viabilidad económica. Esta prioridad fomenta la aplicación de tecnologías limpias, la electrificación de procesos, la generación de energía renovable, el uso de hidrógeno verde y la eficiencia energética en los sectores industriales intensivos, combinando sostenibilidad con mantenimiento del empleo, la inversión y el posicionamiento internacional de nuestras empresas.

Respecto a la generación de energía renovable se evidencia que la industria vasca necesita contar con un suministro energético estable, competitivo y descarbonizado. Esta prioridad persigue impulsar la generación distribuida, el autoconsumo colectivo, los proyectos de energías renovables en suelo industrial y el uso directo de renovables en procesos productivos. Se trata de construir una soberanía energética industrial que refuerce la competitividad y reduzca vulnerabilidades externas.

Por último y en referencia a las redes eléctricas se constata como la electrificación de los procesos industriales y el desarrollo de las energías renovables requieren redes eléctricas más robustas, inteligentes y adaptadas a nuevas formas de producción y consumo.

Entre los proyectos transformadores del Plan sobre los que la Dirección de Descarbonización tiene incidencia directa destacan el Desarrollo de Energías Renovables, la Planificación de las redes eléctricas vascas, Grd4Industry, el Valle de Descarbonización y el Hub de combustibles renovables.

Desarrollo de Energías Renovables. Promover la generación de energías renovables propias y la adaptación al cambio climático. En este sentido el Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables, cuya aprobación se prevé para final de 2026, será una importante herramienta en el logro de este objetivo.

Planificación de las redes eléctricas vascas. Dotar a Euskadi de una infraestructura eléctrica alineada con las necesidades del tejido empresarial, industrial y del conjunto de la sociedad, en el contexto de la transición energética.

Grid4Industry. Desarrollo de tecnología de redes eléctricas, con contenido innovador.

Valle de Descarbonización. Descarbonización del tejido industrial vasco, especialmente en sectores de difícil electrificación (Hard to Abate), mediante el despliegue de una red de ductos, dentro del proyecto Hard To Zero, que conecte los principales polos industriales de Euskadi con centros de producción de hidrógeno verde, así como el desarrollo capacidades para la captura, conducción, almacenamiento y utilización del CO2.

Hub combustibles renovables. Creación de un Polo de generación de valor para el desarrollo de un ecosistema tecnológico industrial en torno a al hidrógeno y los combustibles renovables.

Zuzendaritzaren helburua da: EAEk trantsizio energetiko bidezko eta jasangarri baterantz egin dezan bultzatzea, deskarbonizazio orekatu eta adimenduna bultzatuz; hazkunde ekonomikoa, justizia soziala, garapen industriala eta aurrerapen teknologikoak uztartuz. Energia-aurrezpena eta -efizientzia, autokontsumoa, energia berriztagarriak, elektrifikazioa eta energia-bektore berrien (adibidez, Hidrogenoa) edo erregai berriztagarrien garapena sustatzen duten jarduketak sustatuko dira.

El objetivo de la dirección es impulsar el avance de Euskadi hacia una Transición Energética justa y sostenible que impulse la descarbonización equilibrada e inteligente que conjugue el crecimiento económico, la justicia social, el desarrollo industrial y los avances tecnológicos. Se fomentarán actuaciones que impulsen el ahorro y la eficiencia energética, el autoconsumo, las energías renovables, la electrificación, así como el desarrollo de nuevos vectores energéticos (ej. Hidrógeno) o los combustibles renovables.

PROGRAMA

4421 INGURUMENAREN BABESA

ARDURADUNA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZA
NATURA ONDAREAREN ETA KLIMA ALDAKETAREKIKO EGOKITZAPENAREN ZUZENDARITZA
EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARITZA

PROGRAMA

4421 PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE

RESPONSABLE

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
DIRECCIÓN DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL
DIRECCIÓN DE PATRIMONIO NATURAL Y ADAPTACIÓN AL CAMBIO CLIMÁTICO
DIRECCIÓN DE ECONOMIA CIRCULAR

MEMORIA

EAEk ingurumenaren arloan duen eskumena ingurumen-araudia lege bidez garatzea eta betearaztea dela, eta arlo horretan araugintza-ahalmena duten estamentuetatik araugintza-onarpen etengabea eta ikaragarria egin dela azken urteotan, eta, horren ondorioz, Ingurumen eta Jasangarritasuneko Sailburuordetzak garatutako jardueraren zati handi bat araudi horretatik eratorritako administrazio-prozedurak kudeatzean datzala.

Indarrean dauden plangintza-dokumentuen artean honako hauek nabarmendu behar dira: 2030erako Ingurumen Esparru Programa, 2030erako Lurzorua Babesteko Estrategia, 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia, 2030erako Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Plana, 2030erako Biodibertsitate Estrategia, 2030erako Airearen Kalitate Plana eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana. Dokumentu horiek behar bezala baloratzen ari dira helburuak lortzeari dagokionez, eta berrikusi egin dira, legegintzako eskakizun berrietara eta herritar eta sektore ekonomiko guztien eskaeretara egokitzeko.

Europako esparru berria funtsezkoa da ingurumen-politika horri ekiteko. Hurrengo Europako Batzorderako (2024-2029) orientabide politikoek Europako Oparotasun Plan berri bat nabarmentzen dute:

- Negozioak erraztea eta gure merkatu bakarra indartzea.
- Industria Itun Garbia adostea, energiaren prezioak jaitsi eta deskarbonizatzeko.
- Ikerketa eta berrikuntza gure ekonomiaren motorrak izatea.
- Produktibitatea bultzatzea, teknologia digitala hedatuz.
- Gure lehiakortasun iraunkorrean masiboki inbertitzea.

La competencia que en materia medioambiental ostenta la CAPV consiste en el desarrollo legislativo y ejecución de la normativa ambiental, y en este ámbito se ha producido en los últimos años desde los distintos estamentos con potestad normativa una significativa aprobación normativa, que ha conllevado que una parte importante de la actuación desarrollada por la Viceconsejería de Medio Ambiente consista en la gestión de procedimientos administrativos derivados de aquélla.

Entre los documentos planificadores en vigor cabe destacar: el Programa Marco Ambiental 2030, la Estrategia de Protección del Suelo 2030, la Estrategia de Cambio Climático 2050, el Plan de Prevención y Gestión de Residuos 2030, la Estrategia de Biodiversidad 2030, el Plan de Calidad del Aire 2030 y el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Documentos que están siendo convenientemente valorados respecto a la consecución de objetivos y revisados para su adaptación a las nuevas exigencias legislativas y demandas del conjunto de la ciudadanía y sectores económicos.

El nuevo marco europeo es fundamental para abordar esta política ambiental. Las orientaciones políticas para la próxima Comisión Europea 2024-2029 destacan un nuevo Plan Europeo de Prosperidad para:

- Facilitar los negocios y fortalecer nuestro mercado único.
- Acordar un Pacto Industrial Limpio para descarbonizar y reducir los precios de la energía.
- Hacer que la investigación y la innovación sean los motores de nuestra economía.
- Impulsar la productividad mediante la difusión de la tecnología digital.
- Invertir masivamente en nuestra competitividad sostenible.

Genero-ikuspegi orokorra duen aurrekontua

1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, planteatzen dituen erronkak lortzeko, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea aurreikusten da. Hala, 2027ko aurrekontuek lehentasuna emango diete eremu guztietan emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra bultzatzeko jarduketei. Aurrekontu-jarraibide orokorrekin bat etorriz, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko, soldata desberdintasuna ezabatzeko, lanbide-segregazioa murrizteko, berdintasunean eta berdintasunerako hezkuntzan sakontzeko eta familia-erantzunkidetasuna bultzatzeko neurri espezifikoak lehenetsiko dira.

XIII. Legealdia: Ibilbide-orri berria

2024-2028 legegintzaldiak «Ongizatean Hazi, Ongizatea, Aurrerapena, Eraldaketa eta Autogobernua Euskadi Global baterako» dokumentu programatikoan finkatzen ditu bere jarduera oinarriak, eta dokumentu hori oinarrizko 5 ardatzetan, 32 jarduera arlotan eta 1.000 konpromiso eta ekimenetan egituratuta dago.

Sailburuordetza honi dagozkion jardun-arloak III. ardatzean kokatzen dira nagusiki. Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna:

EBk nazioartean eta klimaren inguruan anbizioz jokatzeko konpromisoa hartu du, 2016ko urriaren 5ean klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioa berretsi ondoren. EBren helburuak dira berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak gutxienez % 55 murriztea 2030erako, 1990eko datuekin alderatuta. Horretarako, «Fit for 55» izeneko legegintza-neurrien pakete oso bat aktibatu du. Epe luzerako helburu gisa, EBk klima-neutraltasuna lortzeko konpromisoa hartu du, 2050erako beranduenez. Bestalde, funtsezkoa da klima-aldaketaren ondorio kaltegarrietara egokitzea, bai eta etorkizuneko inpaktuen aurrean erresilientzia prestatzea eta hobetzea ere. Bi helburu horiek «Europako klimaren legea» izenaz ezagutzen den araudian txertatu ditu.

1. EKINTZA KLIMATIKOA

Euskadiko Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeak klima aldaketara egokitzea lehentasun estrategiko gisa ezartzen du Euskadirentzat, lurraldearen erresilientzia eta sektoreko eta tokiko plangintzan egokitzapen neurriak txertatzea sustatuz, biztanleria, ekosistemak eta jarduera ekonomikoa egungo eta etorkizuneko klima inpaktuen aurrean babesteko.

Beraz, klimaren eta energiaren plangintza integratua eguneratu behar da, epe ertain eta luzera, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren ibilbide-orria eta 2030erako estrategia onartuz.

Un presupuesto con perspectiva global de género

Para la consecución de los retos que plantea el DECRETO LEGISLATIVO 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, se prevé el refuerzo de los recursos económicos, humanos y técnicos. Así, los presupuestos de 2027 continuarán dando prioridad a las actuaciones orientadas a favorecer la igualdad efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos. En consonancia con las directrices presupuestarias generales, se priorizarán medidas específicas dirigidas a luchar contra la violencia machista, eliminar la desigualdad salarial, reducir la segregación ocupacional, profundizar en una educación desde la igualdad y para la igualdad y a impulsar la corresponsabilidad familiar.

XIII Legislatura: Una nueva Hoja de ruta

La legislatura 2024-2028 fija sus bases de actuación en el documento programático «Ongizatean Hazi, Bienestar, Progreso, Transformación y Autogobierno para una Euskadi Global» estructurado en 5 ejes básicos, 32 áreas de actuación y 1.000 compromisos e iniciativas.

Las áreas de actuación que corresponden a esta Viceconsejería se enmarcan principalmente en el Eje III. Transformación energética y sostenibilidad:

La UE se ha comprometido a actuar con ambición a nivel internacional y en relación con el clima, tras haber ratificado el Acuerdo de París sobre el cambio climático el 5 de octubre de 2016. Los objetivos de la UE son reducir las emisiones de gases de efecto invernadero (GEI) en al menos un 55 % para 2030, en comparación con 1990, para lo cual ha activado todo un paquete de medidas legislativas denominado «Fit for 55». Como objetivo a largo plazo, la UE se ha comprometido en alcanzar la neutralidad climática lo más tardar para 2050. Por otro lado, la adaptación a los efectos adversos del cambio climático resulta fundamental, así como la preparación y la mejora de resiliencia ante impactos futuros. Ambos objetivos los ha integrado en el reglamento conocido como «Ley del clima europeo».

1. ACCIÓN CLIMÁTICA

La Ley 1/2024 de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi establece la adaptación al cambio climático como una prioridad estratégica para Euskadi, promoviendo la resiliencia del territorio y la integración de medidas adaptativas en la planificación sectorial y local, con el objetivo de proteger a la población, los ecosistemas y la actividad económica frente a los impactos climáticos presentes y futuros.

Por tanto, se debe actualizar la planificación integrada de clima y energía, a medio y largo plazo, mediante la aprobación de la Hoja de ruta de transición energética y cambio climático y la correspondiente estrategia a 2030.

Euskadik Egokitzeko Europako Misioan parte hartzeak, eskualde erakusle gisa, finantzaketa lortzeko aukerak ematen ditu, urrakortasuna gutxitzen eta lurralde-erresilientzia areagotzen duten jarduketa-neurriak ezartzeko, bai eta klima-aldaketara egokitzearen arloan berrikuntzaren aldeko apustu garbia egiteko ere.

Euskadi aktiboki parte hartzen ari da proiektu erakusleen proposamenean eta egokitzapenarekin lotutako esperientziak partekatzeko foro eta plataformetan parte hartzean.

Sei proiektu erakusle jarri dira abian, KAIA mahaiaren bitartez, lurraldean klima-aldaketara egokitzeko esku-hartze estrategiko gisa sortuak, erreplikazio-ahalmen handiarekin.

Honako ekintza hauek eginez:

- Karbono-ekonomia neutroa lortzeko bidean aurrera egitea, enplegua sortzeko eta industria- eta teknologia-garapenerako aukera gisa.

    1. Berrikuntza eta zeharkako garapen teknologikoa klimaren aldeko ekintzan.

    2. Teknologia garbien euskal zerrenda aktibo eta eguneratuta mantentzea, fiskalitate berdearen tresna gisa, deskarbonizazioan eta klima-egokitzapenean lagunduz.

    3. Klima-aldaketaren aurrean gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-sistemen esposizioa eta kalteberatasuna murriztuko duten eta, batez ere, naturan eta haren monitorizazioan oinarritutako erresilientzia hobetuko duten egokitzapen-neurri eraginkorrak bultzatzea.

    4. Lurzoruan zein biomasan, lurraldearen karbono-xurgapenerako potentziala (berdea eta urdina) handituko duten jarduerak sustatzea, karbono-hustubide berriak sortuz edo horiek xurgatzen lagunduko duten kudeaketa-teknikak aplikatuz.

    5. Klimatek ekimenaren bidez, ezagutza aurreratuaren transferentzia dinamizatzen jarraitzea eta klima-aldaketaren aurrean egokitzeari eta erresilientziari buruzko erakustaldi-proiektuak aurkeztea.

    6. Dauden azpiegiturek muturreko gertaera meteorologikoen aurrean erantzuteko duten gaitasuna indartzea eta alerta goiztiarreko sistemak indartzea, klima-aldaketara egokitzeko funtsezko neurri gisa.

    7. Lurraldearen antolamenduan ingurumen- eta klima-irizpideak txerta daitezen sustatzea, natura lehengoratzeko Legearekin sinergiak bilatzea, paisaia-planak eta bestelakoak, hala nola palankak, egokitzeko neurriak bultzatzeko.

- Gobernantza klimatikoaren eredu berri bat sustatzea.

    1. «Energia trantsizioari eta klima aldaketari buruzko 1/2024 Legeak» ezarritakoa garatzea, klima aldaketaren arloko erakundeen arteko koordinazio mekanismoak eta organoak garatuz.

La participación de Euskadi en la Misión Europea de adaptación como región demostradora, ofrece oportunidades de obtención de financiación para implantar medidas de actuación que disminuyan la vulnerabilidad e incrementen la resiliencia de territorio, y son una apuesta clara por la innovación en materia de adaptación al cambio climático.

Euskadi está participando activamente en la propuesta de proyectos demostradores y en la participación en foros y plataformas para compartir experiencias relacionadas con la adaptación.

Se han puesto en marcha seis proyectos demostradores, a través de la mesa KAIA, concebidos como intervenciones estratégicas de adaptación al cambio climático en el territorio con alto potencial de replicación.

Mediante la realización de las siguientes acciones:

Erosketa publiko berdearen ehunekoa 2030eko Euskadiko erosketa eta kontratazio berdearen programan lehenetsitako kategorietan.	**%60**	Porcentaje de compra pública verde en las categorías priorizadas en el Programa de compra y contratación verde de Euskadi 2030.
ETE zirkular programari atxikitako bitarteko agenteen kopurua.	**30**	N.º de agentes intermedios adheridos al programa PYME circular.
Basque Ecodesign Center aliantzak bultzatutako proiektuen kopurua.	**30**	N.º de proyectos impulsados desde la alianza Basque Ecodesign Center.

PROGRAMA

5121 URAREN PLANGINTZA ETA ADMINISTRAZIOA

PROGRAMA

5121 PLANIFICACIÓN Y ADMINISTRACIÓN HIDRÁULICA

ARDURADUNA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
INGURUMEN SAILBURUORDETZA

RESPONSABLE

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
VICECONSEJERIA DE MEDIO AMBIENTE

MEMORIA

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, II. Kapituluan, Uraren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen du Eusko Jaurlaritzako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan uraren arloko politika aurrera eramateko tresna nagusia izan dadin. Bestalde, azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuak Uraren Euskal Agentziaren estatutuak onartu zituen, eta abenduaren 18ko 233/2007 Dekretuaren bidez, zehazki, Uraren Euskal Agentziaren jardueretako hasiera arautzen da, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren giza baliabideak eta materialak agentzia horri atxikitzeko baldintzak ezarriz.

Agentziak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenen esparruan uraren arloaz arduratzen den erakunde den heinean, 1/2006 Legearen 7. artikuluan adierazitako eginkizunak betetzen ditu, baita Zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuaren 4. artikuluan jasotakoak ere.

Agentziak jarduten du 1/2006 Legearen 3. artikuluan adierazitako printzipio nagusiekin bat etorriz eta azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, dituen zereginak betetzen eta eskaini beharreko zerbitzuak ematen eraginkortasun handiena bermatuz, erabiltzaileen parte-hartzearen printzipioarekin bat etorriz, haien eskubideak eta interesak bermatuz eta guztiz errespetatuz beste administrazio batzuei dagozkien eskumenak. Era berean, administrazioen arteko koordinazio eta elkarlaneko printzipioarekin bat jarduten du, lankidetzarako gobernantza, eta ahalik eta administrazio publikoen arteko erakundearteko lankidetza, adostasuna eta koordinazio handiena bultzatuz, eta politika estrategikoen garapenean aktiboki parte hartzen.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea y regula en su Capítulo II la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, como Ente Público de derecho privado, llamado a constituirse en la administración hidráulica de referencia para llevar a cabo la política del agua en Euskadi. Por otra parte, el Decreto 178/2023, de 28 de noviembre, aprueba los Estatutos de la Agencia Vasca del Agua y es el Decreto 233/2007 de 18 de diciembre, quien regula el inicio de actividades de la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, estableciendo las condiciones de adscripción de los medios personales y materiales de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la misma.

La Agencia, como entidad responsable en materia de aguas en el ámbito de las competencias que corresponden a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ejerce las funciones indicadas en el artículo 7 de la Ley 1/2006 y las recogidas en el artículo 4, del Decreto 178/2023, de 28 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del ente público de derecho privado.

La Agencia desempeña su actividad de acuerdo con los principios generales señalados en el artículo 3 de la Ley 1/2006 y de acuerdo a lo establecido en el artículo 5, del Decreto 178/2023, de 28 de noviembre, garantizando la máxima eficacia en el cumplimiento de sus funciones y en la prestación de sus servicios, de acuerdo con el principio de participación de las personas usuarias, garantía de sus derechos e intereses y con pleno respeto de las competencias que correspondan a otras administraciones. Asimismo, desarrolla su actividad de acuerdo con el principio de coordinación y cooperación interadministrativa, impulsando una gobernanza colaborativa, la máxima colaboración, concertación y coordinación interinstitucional entre las administraciones públicas y participando activamente en el desarrollo de las políticas estratégicas.

Testuinguru horren barruan, berebiziko garrantzia hartzen du Euskadiko uraren gaineko politikak, hauek bermatu behar baitira: ur-segurtasuna, ur-masen babesa eta egoera ekologiko ona, uholdeen aurreko erresilientziaren hobekuntza, pertsonak eta ondasunak babesteko gertaera meteorologiko bortitzen aurrean, zeinak, gainera, bortitzago bilakatu daitezkeen klima-aldaketaren ondorioz. Eta hori guztia gobernantza eta gardentasunaren ereduaren etengabeko hobekuntzarekin bat, administrazio hurbilago, sinpleago, arinago eta eraginkorragoa eginez, kudeaketa desburokratizatuz eta, administrazioa erraztearen eta bizkortzearen bitartez, herritarrarenganako aurrez aurreko arreta eta arreta telematikoa hobetuz.

Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren konpromisoa da uraren kalitatea eta kudeaketa jasangarria bermatzea, baita eskuragarritasuna bermatzea ere giza kontsumorako, jarduera ekonomiko eta produktiboetarako eta nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako, honela:

1.- Hornidura, saneamendu, eta arazketa-zerbitzuen bermea, hornidura sistema aurreratua, uraren eskuragarritasuna eta haren kalitatea bermatuko dituena giza kontsumorako, jarduera ekonomiko eta produktiboetarako eta nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako.

2.- Edateko ur-sarearen kudeaketa efizientea eta hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak hobetzea.

3.- Hondakin-urek sortutako kutsaduraren murrizketa, eta hondakin-uren tratamendua, balorizazioa eta berrerabilpena bultzatzea.

4.- Hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak eta -instalazioak hobetzea.

5.- Ibai-sistemak babestea, berreskuratzea eta kontserbatzea, pertsonak eta ondasunak babestean erresilienteagoak izan daitezen, uholde-arriskuen aurrean, zeinak berotze globalaren ondorioz gero eta ohikoagoak izango baitira.

6.- Administrazioen arteko ituna, lankidetza eta koordinazioa bultzatzea, uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala hobetzeko eta, hornidurarako, saneamendurako eta uholdeen aurkako babeserako beharrezkoak diren azpiegiturak garatzeko.

7.- Hornidurarako, saneamendurako eta uholdeei aurre egiteko beharrezkoak diren azpiegiturak garatzea.

8.- Uretako ekosistemen lehengoratzea, berreskuratzea eta babesa.

Aipatutako guztiak oso kontuan izan behar du klima-aldaketak egoera berri baten eraginpean jartzen gaituela.

Ura ezinbesteko ondasuna da bizitzeko, funtsezkoa eta oinarrizkoa pertsonentzat, eta edozein sektoretako jarduera produktibo eta ekonomikorako beharrezkoa; hortaz, beharrezkotzat jotzen da ur-hornidura segurua bermatzea, aurreikusteko modukoa, eta, batez ere, kalitatezkoa, azken finean, ur-segurtasuna bermatu behar da.

Dentro de este contexto adquiere especial relevancia la política del agua en Euskadi, en tanto que se ha de satisfacer la seguridad hídrica, la protección y buen estado ecológico de las masas de agua, la mejora de la resiliencia ante inundaciones para la defensa de las personas y bienes frente a los eventos meteorológicos adversos que pueden, además, ser más extremos y recurrentes, como efecto del cambio climático. Todo ello conforme a la mejora continua del modelo de gobernanza y transparencia, profundizando en una administración más cercana, sencilla, ágil y eficiente, a través de la desburocratización de la gestión y la agilización y simplificación administrativa y mejorando la atención ciudadana que se presta de manera presencial y telemática.

El compromiso del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, es el de garantizar la calidad del agua, su gestión sostenible, y la garantía de disponibilidad para el consumo humano, las actividades económicas y productivas y las actividades agrarias y ganaderas, mediante:

1.- La garantía de los servicios de abastecimiento, saneamiento y depuración, un sistema de abastecimiento avanzado, que garantice la disponibilidad del agua y su calidad, para el consumo humano, las actividades económicas y productivas y las actividades agrarias y ganaderas.

2.- La gestión eficiente de las redes de agua potable y mejorando los servicios e instalaciones de saneamiento y depuración de aguas residuales.

3.- La reducción de la contaminación producida por aguas residuales e impulsando el tratamiento, la valorización y la reutilización de las aguas residuales.

4.- Mejorando los servicios e instalaciones de saneamiento y depuración de aguas residuales.

5.- La protección, recuperación y conservación de los sistemas fluviales, para que resulten más resilientes en la protección de personas y de bienes, frente a los episodios de inundabilidad, episodios que serán más habituales como consecuencia del calentamiento global.

6.- El impulso de la concertación, colaboración y coordinación entre las administraciones, para la mejora de la gestión integral del ciclo urbano del agua y el desarrollo de las infraestructuras necesarias de abastecimiento, saneamiento y defensa frente a inundaciones.

7.- Desarrollando las infraestructuras necesarias de abastecimiento, saneamiento y defensa frente a inundaciones.

8.- La restauración, recuperación y protección de los sistemas acuáticos.

Todo ello debe tener muy presente la nueva perspectiva a la que nos somete el cambio climático.

El agua es un bien imprescindible para la vida, esencial y básico para las personas y necesario para las actividades productivas y económicas de cualquier sector y, por tanto, es necesario garantizar un suministro de agua seguro, previsible y sobre todo de calidad, en definitiva, garantizar la seguridad hídrica.

Klima-aldaketaren testuinguruan, bereziki garrantzitsu bilakatzen da uraren ziklo integralaren ekonomia zirkularra, hartunetik isurketara, baita berrerabilpena ere, ura biltegiratu, edangarri bihurtu, banatu, araztu eta berrerabili ahal izateko azpiegitura-multzo baten bidez lortzen dena. Beharrezkoa da kudeaketa-eredu integral, efiziente eta kalitatekoan aurrera egiten jarraitzea; hortaz, Sailetik eta URAren bidez, erakundeen arteko lankidetza, ituna eta koordinazioa areagotuko da (batez ere, foru-aldundi, udal, administrazio-batzorde eta erakunde kudeatzaileekin).

Klima-aldaketak uholde-arriskuan duen eragina ere garrantzitsua da, batez ere uholde-hazkundean, puntako ur-emariei dagokienez errepikatze-denboretarako. Orobat, horrek prebentzio-lana egitera behartzen gaitu lurraldearen erabileren antolamenduari dagokionez, baita politika hidraulikoaren eta hirigintzaren arteko etengabeko adostasuna eta koordinazioa.

Ura bizitzarako ezinbestekoa dela dioen printzipioan oinarrituta, funtsezko baliabide naturala da, eta haren ekosistemak giza garapen jasangarrirako ez ezik, biziraupenerako ere ezinbestekoak dira. Abiapuntu hori aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailak bere proposamen estrategikoa zehaztu du Uraren Euskal Agentziak 2024-2028 legegintzaldi honetan jarduteko, aurrekontu honen bost ardatzetan.

Hona hemen Uraren Euskal Agentziaren helburu instrumental nagusien zerrenda:

En el contexto de cambio climático cobra especial importancia la economía circular del ciclo integral del agua, desde la captación al vertido y la reutilización, mediante un conjunto de infraestructuras que permitan almacenar, potabilizar, distribuir, depurar y reutilizar el agua. Es preciso seguir avanzando en el modelo de gestión integral, eficiente y de calidad, en este sentido desde el Departamento y a través de URA, se intensificará la colaboración, concertación y coordinación interinstitucional (con Diputaciones Forales, Ayuntamientos, Juntas Administrativas y entes gestores, principalmente).

No es menos importante el efecto del cambio climático en la inundabilidad, sobre todo en el incremento de la torrencialidad, de los caudales punta para los diferentes periodos de retorno. Esto nos obliga, también, a la prevención en la ordenación de usos en el territorio, y a una permanente concertación y coordinación entre la política hidráulica y el urbanismo.

Bajo el principio de que el agua, es imprescindible para la vida, es el recurso natural esencial y sus ecosistemas, no es sólo imprescindible para un desarrollo humano sostenible, sino para la propia supervivencia, el Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad del Gobierno Vasco define su propuesta estratégica para la actuación de la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua para esta legislatura 2024-2028, en cinco ejes sobre los que está formulado este Presupuesto.

Los principales objetivos instrumentales de Uraren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Agua se pueden enumerar como sigue:

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. SANEAMENDU ETA ARAZKETA-ZERBITZUEN BERMEA		**1. GARANTÍA DE LOS SERVICIOS DE SANEAMIENTO Y DEPURACIÓN**
1. Aldundi, toki-administrazio eta erakunde kudeatzaileen arteko lankidetza eta ituna, hornidura, saneamendu, arazketa eta berrerabilpen-obrak egitean.		1. Colaboración y concertación con Diputaciones, administraciones locales y entes gestores, en la realización de obras de abastecimiento, saneamiento, depuración y reutilización.
Lankidetza-hitzarmenak. Zenbakia.	**11**	Convenios de colaboración. Número.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**12,90**	Inversión realizada. Millones de euros.
2. EKOSISTEMA URTARRAK ETA BIODIBERTSITATEA LEHENERATZEA ETA ZAINTZEA		**2. RESTAURACIÓN Y PROTECCIÓN DE ECOSISTEMAS ACUÁTICOS Y BIODIVERSIDAD**
1. Jabari Publiko Hidraulikoa eta Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoa Kudeatzeko Obra Baimenen Arloari buruzko administrazio-espedienteen tramitazioa.		1. Tramitación de expedientes administrativos relativos al Área de Autorizaciones de Obra de Gestión del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
Obra-baimenen espedienteak eta horrekin lotzen diren kontsulta tramitatuak, guztira. (AO/CO/CZ).	**2.000**	Total de expedientes de autorizaciones de Obra y consultas relacionadas tramitadas. (AO/CO/CZ).
Bide sinplifikatu bidez tramitatutako obra-baimenen espedienteen ehunekoa. (erantzukizunpeko adierazpenak).	**%30**	Porcentaje de expedientes de autorización de obra tramitados por vía simplificada. (Declaraciones Responsables).

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Epean tramitatutako obra-baimenen (AO/Z) espedienteen ehunekoa.	**%85**	Porcentaje de expedientes de Autorización de Obra (AO/Z) tramitados en plazo.
2. Uraren eta beste politika sektorial batzuen arloko planak, programak eta proiektuei buruzko txostenak egitea (hirigintza, lurralde-antolamendua, industria, trantsizio energetikoa, azpiegiturak, etab.).		2. Emisión de informes sobre planes, programas y proyectos en materia de aguas y de otras políticas sectoriales (urbanismo, ordenación del territorio, industria, transición energética, infraestructuras, etc.).
Txostenak egiteko epeak murriztea. Ehunekoa.	**%2**	Reducción de los plazos de emisión de informes. Porcentaje.
Egindako txostenak. Zenbatetsitako kopurua.	**368**	Informes emitidos. Número estimativo.
3. Jabari Publiko Hidraulikoaren eta, Itsas eta lehorraren arteko Jabari Publikoaren berreskurapen-lanei dagozkien kanonak kudeatzea.		3. Gestión de los cánones correspondientes en labores de recuperación del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
Urtean sortutako kanonen zenbateko osoa. Milioi euro.	**9**	Importe total de cánones devengados en el año. Millones de euros.
Kanonen diru-sarrerak. Sortutako diru-sarreretatik sartutako ehunekoa.	**%95**	Ingresos cánones. Porcentaje ingresado respecto a los devengados.
4. Ibilguak lehengoratzeko eta kontserbatzeko lanak.		4. Trabajos de restauración y conservación cauces.
Lehengoratze-jarduketetan egindako inbertsioa. Milioi euro.	**6**	Inversión realizada en actuaciones de restauración. Millones de euros.
Jarduketaren xede den ibaiertzaren luzera. Kilometroak.	**240**	Longitud de ribera sobre la que se actúa. Kilómetros.
Ibilguak lehengoratzeko eta kontserbatzeko lankidetza-hitzarmenak. Zenbatetsitako kopurua.	**160**	Convenios de colaboración para la restauración y conservación de cauces. Número estimativo.
5. Ur-ekosistemen babesa ziurtatzeko egindako ikuskapenak.		5. Inspecciones realizadas para asegurar la protección de los ecosistemas acuáticos.
URAk hartutako eta aztertutako hondakin-uren laginak, uren kutsaduraren jarraipena, kontrola eta ikerketa egiteko.	**2.135**	Número de muestras de aguas residuales tomadas y analizadas por URA para seguimiento, control e investigación de la contaminación de las aguas.
Isurketak zaintzeko eta jarraipena egiteko egindako ikuskapenen kopurua.	**3.000**	Número de inspecciones realizadas para la vigilancia y seguimiento de vertidos.
Obrak zaintzeko eta jarraipena egiteko egindako ikuskapenen kopurua.	**3.000**	Número de inspecciones realizadas para la vigilancia y seguimiento de obras.
Aprobetxamenduak zaintzeko eta jarraipena egiteko egindako ikuskapenen kopurua.	**1.000**	Número de inspecciones realizadas para la vigilancia y seguimiento de aprovechamientos.
6. Jabari Publiko Hidraulikoa eta, Itsas eta lehorraren arteko Jabari Publikoa hondatzea saihesteko, zehapen-prozedurak izapidetzea.		6. Tramitación de procedimientos sancionadores para evitar el deterioro del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
Izapidetutako zehapen-espedienteak. Zenbatetsitako kopurua.	**120**	Expedientes sancionadores tramitados. Número estimativo.
7. Ibaiak, akuiferoak eta lurzoru degradatuak birsortzeko eta berreskuratzeko erakundearteko jarduketak, lurzoruak berreskuratzea eta ur-sistemen naturalizazioa uzteko.		7. Actuaciones interinstitucionales de regeneración y recuperación de ríos y acuíferos y suelos degradados, que permitan la recuperación de suelos y la naturalización de los sistemas acuáticos.
Birsortzeko eta berreskuratzeko jarduketak. Zenbatetsitako kopurua.	**2**	Actuaciones de regeneración y recuperación. Numero estimativo.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
3. SEGURTASUN HIDRIKOA		**3. SEGURIDAD HÍDRICA**
1. Hiri erabilera duen uraren ziklo integralaren segurtasun hidrikoari laguntzen dioten esku-hartzeak garatzeko jarduketak laguntzea eta bultzatzea giza kontsumorako.		1. Apoyo e impulso de actuaciones para el desarrollo de intervenciones que contribuyan a la seguridad hídrica del ciclo integral del agua de uso urbano, para consumo humano.
Ura etxean kontsumitzeko mugarik ez duten Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ehunekoa.	**%97**	Porcentaje de población de la Comunidad Autónoma que no sufre restricciones para el consumo doméstico de agua.
4. UHOLDEEN AURREAN ERRESILIENTZIA HOBETZEA		**4. MEJORA DE LA RESILIENCIA ANTE INUNDACIONES**
1. Uholde-arriskuen aurreko erresilientzia hobetzeko jarduketak.		1. Actuaciones de mejora de la resiliencia frente a episodios de inundabilidad.
Erakundeen arteko hitzarmenak. Zenbatetsitako kopurua.	**12**	Convenios interinstitucionales. Número estimativo.
2. Uholdeetatik babesteko obretan, inbertitzeko plana.		2. Plan de inversiones en obras de defensa frente a inundaciones.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**18,70**	Inversión realizada. Millones de euros.
3. Uholde-arriskuari aurre egiteko Sistemaren mantentze-lanak eta garapena.		3. Mantenimiento y desarrollo del Sistema de Prevención ante el riesgo de inundación.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**0,60**	Inversión realizada. Millones de euros.
5. DIGITALIZAZIOA ETA PROIEKTU BERRITZAILEAK		**5. DIGITALIZACIÓN Y PROYECTOS INNOVADORES**
1. Administrazio hidraulikoaren kudeaketa eta administrazioaren digitalizazioa.		1. Digitalización de la gestión y administración de la Administración hidráulica.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**1,60**	Inversión realizada. Millones de euros.
2. Ur-masen egoera jarraitzea.		2. Seguimiento del estado de las masas de agua.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**2,60**	Inversión realizada. Millones de euros.
Kontrol-puntuak EAEko ur-masen egoera jarraitzeko. Zenbakia.	**445**	Puntos de control para el seguimiento del estado de las masas de agua de la CAPV. Número.
3. Uraren zikloa digitalizatzeko PERTE proiektuak.		3. Proyectos del PERTE Digitalización del ciclo del agua.
Lankidetza-hitzarmenak. Zenbakia.	**9**	Convenios de colaboración. Número.

PROGRAMA

5413 TEKNOLOGIA

ARDURADUNA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZA ZUZENDARITZA

PROGRAMA

5413 TECNOLOGÍA

RESPONSABLE

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
DIRECCIÓN DE TECNOLOGÍA
E INNOVACIÓN

MEMORIA

Europa erabakitasunez ari da oinarrizko printzipio bat onartzen: «Europa Gehiago nahi badugu, Industria Gehiago behar dugu». Teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren bidez industria indartzea ez da soilik aukera bat; gure gizarte-eredua, printzipioak eta balioak eta ongizatea mantentzeko agindu estrategikoa da.

Euskadi, azken hamarkadetan, bere ehun produktibo, ekonomiko eta sozialaren eraldaketa sakoneko prozesu baten protagonista izan da, eta horrela, testuinguru globalean lehiakorra izaten jarraitu du, non nazioarteko presentzia, digitalizazioa, kalitatea, aurrerapen teknologikoa eta berrikuntza lehiakortasunaren funtsezko faktore bihurtu diren.

I+G+bren aldeko apustua Euskadiren nortasun-ezaugarrietako bat da. Herrialde baten garapen ekonomikoaren funtsezko adierazlea da, eta bere produktibitatea eta lehiakortasuna baldintzatzen ditu, baita hazkunde iraunkorra lortzeko faktore erabakigarria ere bada.

Industria lehiakorra behar dugu, eta, horretarako, enpresa-sare teknologikoki aurreratua. Lehentasun horren helburua da funtsezko teknologia bideratzaileak sustatzea, I+G+bn lankidetza publiko-pribatua sustatzea eta industria-enpresa txiki eta ertainei beren bilakaera teknologikoa bizkortzen duten tresnak eskuratzen laguntzea. Helburua da euskal enpresa gehiago berrikuntzaren mugan kokatzea, bai produktuetan, bai prozesuetan. Ingurune horretan, teknologiak eraldaketa industrialaren funtsezko faktore gisa jarduten du.

Europa está asumiendo con decisión un principio fundamental «si queremos Más Europa, necesitamos Más Industria». Reforzar la industria a través de la tecnología, la investigación y la innovación, ya no es solo una opción; es un imperativo estratégico para mantener nuestro modelo de sociedad, nuestros principios y valores, nuestro bienestar.

Euskadi, en las últimas décadas, viene protagonizando un proceso de profunda transformación de su tejido productivo, económico y social y así seguir siendo competitivo en el contexto global, en el que la presencia internacional, la digitalización, la calidad, el progreso tecnológico y la innovación se han convertido en factores clave de la competitividad.

La apuesta por la I+D+i es la seña de identidad de Euskadi. Es un indicador clave del desarrollo económico de un país y condicionante de su productividad y competitividad, así como un factor determinante para lograr un crecimiento sostenible.

Necesitamos una industria competitiva y para ello, contar con un tejido empresarial tecnológicamente avanzado. Esta prioridad busca impulsar la adopción de tecnologías facilitadoras esenciales, fomentar la colaboración público-privada en I+D+i y facilitar el acceso de las pymes industriales a instrumentos que aceleren su evolución tecnológica. El objetivo es que más empresas vascas se sitúen en la frontera de la innovación, tanto en productos como en procesos. En este entorno la tecnología actúa como factor clave de transformación industrial.

Europar Batasunaren iritziz, berrikuntza bere lehiakortasunaren motore indartsua da, eta Euskadik espiritu hori bera du; berrikuntza garapen ekonomikoaren funtsezko adierazlea da, eta hazkunde iraunkorraren bultzatzailea. RIS 2025aren (Regional Innovation Scoreboard) arabera, berrikuntza handiko eskualdea da Euskadi, Europako eta Estatuko batez bestekoa gaindituz, eta, gainera, Horizonte Europa Esparru Programako funtsak biltzen dituen Europako 18. eskualdea da. Gure helburua hazten jarraitzea eta berrikuntzan liderra den Europako eskualde bihurtzea da.

Euskal enpresen % 50,6k beren burua berritzailetzat jotzen dute 2024an, Europako batez bestekoaren antzeko maila, eta bilakaera positiboa izan dute azken urteetan. Horrez gain, teknologia-maila ertain-handiko manufaktura-industriaren esportazioak manufaktura-industriaren esportazio guztien balioaren erdia baino gehiago dira (% 52,5 2024an).

Euskadiko I+Gko inbertsioa BPGren % 2,15 izan da 2024an, eta zifra % 2,22ra igoko da 2026an, egindako zenbatespenen arabera. Enpresak dira EAEko I+Gko egikaritze-sektore nagusia (% 56,7 2024an), baina haien pisua ELGAko herrialde aurreratuenena baino txikiagoa da. Gure egitura ekonomikoak eta konpainia handien presentzia txikiagoak pisu hori baldintzatzen dute.

Euskadik Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema eraiki du, ZTBES, sendoa, eta horrek eragina du enpresa-sektorearen enpleguan, fakturazioan eta nazioartekotzean lortutako emaitzekin, eta, beraz, lehiakortasunean. Horrez gain, 141 eragilez osatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (eragile horiek pixkanaka handitu dute eraginkortasuna eta emaitzetarako orientazioa) eta ikerketa-agendak eta gaitasun-mapak zehaztean ardaztuta dagoen Basque Research and Technology Alliance Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa- BRTA ere baditu. Jarduketa horiek, jakintza eta teknologia euskal enpresa-sarera transferitzea ahalbidetzen dute, ikerketaren emaitzen balorizazioa erraztearekin batera.

Industria Gehiago eta Hobearen erronkei erantzuteko, teknologiaren eta berrikuntzaren ekarpena areagotu behar da, eta horrek esan nahi du ahalegin publiko eta pribatu bateratua egin behar dela eta epe luzerako estrategia bat finkatu behar dela, Euskadi 2030 Industria Plana, Euskadi Europako berrikuntza polo bihurtzeko lehentasunezko helburuarekin, hazkunde ekonomikoari eta ongizateari lagunduz, baita kalitatezko enpleguak sortzeko ere.

Euskadi 2030 Industria Planak, hurrengo ekitaldietan ezarri beharreko industria-politika markatzen duenak, hiru jarduera-ardatz ditu Europarekin lerrokatuta, eta bat egiten du administrazioa desburokratizatzeko eta sinplifikatzeko agendarekin. Plan hau funtsezko tresna da euskal industriaren egungo erronkei aurre egiteko. Ziklo berri hau industria-eredu jasangarriagoa, digitalizatuagoa eta erresilienteagoa finkatzera bideratuta dago, datozen urteetan Euskadiren lehiakortasuna eta lidergoa bermatuko dituena.

La Unión Europea considera la innovación un potente motor de su competitividad y Euskadi comparte ese mismo espíritu, la innovación es un indicador fundamental del desarrollo económico y un impulsor de crecimiento sostenible. Somos una región de alta innovación según el RIS 2025 (Regional Innovation Scoreboard), superando la media europea y la nacional, y además se posiciona como la 18ª región europea en captación de fondos del Programa Marco Horizonte Europa. Nuestro objetivo es seguir creciendo y convertirnos en una región europea líder en innovación.

El 50,6% de las empresas vascas se consideran innovadoras en 2024, un nivel similar a la media europea , con positiva evolución en los últimos años. A esto añadimos que las exportaciones de la industria manufacturera de medio-alto nivel tecnológico suponen más de la mitad del valor de todas las exportaciones de la industria manufacturera (52,5% en 2024).

La inversión en I+D de Euskadi representa el 2,15% de su PIB en 2024 y la cifra se elevará hasta el 2,22% en 2026 según estimaciones realizadas. Las empresas son el principal sector de ejecución de la I+D vasca (56,7% en 2024), aunque su peso es inferior al de los países más avanzados de la OCDE. Nuestra estructura económica y la menor presencia de grandes compañías condicionan dicho peso.

Euskadi ha construido un Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, SVCTI, sólido, que impacta con los resultados obtenidos en empleo, facturación e internacionalización del sector empresarial y por tanto, en su competitividad y cuenta con una Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación compuesta por 141 agentes, que han ido aumentando gradualmente su eficiencia y orientación a resultados, y con el Consorcio Científico-Tecnológico Vasco- Basque Research and Technology Alliance, BRTA, cuyas actuaciones, focalizadas en la definición de las agendas de investigación y los mapas de capacidades, permiten reforzar la transferencia de conocimiento y tecnología al tejido empresarial vasco junto con facilitar la valorización de los resultados de investigación.

La respuesta a los retos de Más y Mejor Industria pasa por intensificar la contribución de la tecnología y la innovación, lo que implica la necesidad de realizar un esfuerzo conjunto público privado y fijar una estrategia a largo plazo, el Plan de Industria Euskadi 2030, con el objetivo prioritario de hacer de Euskadi un polo de innovación europeo, contribuyendo al crecimiento económico y al bienestar, así como a la creación de empleos de calidad.

El Plan de Industria Euskadi 2030, que marca la política industrial a implementar en los próximos ejercicios, tiene tres ejes de actuación alineados con Europa y comparte la agenda de desburocratización y simplificación administrativa. Este Plan se concibe como una herramienta clave para afrontar los retos actuales de la industria vasca. Este nuevo ciclo se orienta a consolidar un modelo industrial más sostenible, digitalizado y resiliente, que garantice la competitividad y el liderazgo de Euskadi en los próximos años.

TBZk zabaldutako ekimenek, jarduketek eta tresnek Euskadi 2030 Industria Planean finkatutako erronkak gainditzen eta helburuak lortzen lagunduko dute, eta eragina izango dute hiru ardatz estrategikoetan (industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago) eta ia lehentasun estrategiko guztietan, IA eta zibersegurtasuna, deskarbonizazioa, ekonomia zirkularra, energia berriztagarriak sortzea eta klima aldaketara egokitzea barne. TBZren jarduerek eragina dute euskal industriaren trantsizio handiak ahalbidetuko dituzten gaitasun teknologiko disruptiboen garapenean, lehiakortasuna indartuz eta sustatuz.

TBZk abian jartzen dituen ekimenak 3 zutabetan egituratzen dira, «Proiektu Eraldatzaileen bidezko Industria Planaren operazionalizazioa» multzoaren barruan:

1. PROIEKTU ERALDATZAILEAK

Zuzenean laguntzen dute Planean ezarritako lehentasun estrategikoetako bat edo batzuk lortzen; palanka estrategikoak dira, euskal produkzio-sarean eraldaketa estruktural eta jasangarriak aktibatzera bideratuak.

Proiektu Eraldatzaileek proaktiboak, kolaboratiboak eta oso moldagarriak izateko beharrari erantzuten diote, industria-eraldaketari testuinguru konplexu eta azkar aldakor batean ekiteko. Dinamika bati erantzuten diote; dinamika horretan, proiektu eraldatzaile berriak sartzeko aukera egongo da, etengabeko atzemate- eta identifikazio-prozesuen ondorioz.

2. INDUSTRIARAKO LAGUNTZAK ETA ZERBITZUAK

Plan honetan sartutako «Proiektu Eraldatzaileen» figura osatu egingo da aldez aurretik azken urteetan garatutako tresnekin. Tresna horiek erakutsi dute funtsezkoak direla industria-jarduerari eusteko eta hobetzeko eta enpresa-sarearen premiei arin erantzuteko, sinplifikazioaren eta desburokratizazioaren alde eginez.

Euskadi 2030 Industria Plan honen zuzeneko ondorio gisa, proiektu eraldatzaileei laguntzeko laguntzak eta tresnak eguneratuko dira.

1. Industria hobea. Enpresen maila teknologiko berritzailea handitzea eta industriara talentu berria erakartzea eta garatzea.

a) Enpresen I+G. Proiektu eraldatzaileak, estrategikoak eta lehiakorrak. HAZITEK.

Enpresetan ikerketa eta garapena bultzatzean, haien berrikuntza-gaitasuna bultzatzen da, eta, horren ondorioz, produktu, zerbitzu eta prozesu berriak sortzen dira, merkatu globalean haien hazkundea eta lehiakortasuna erraztuz. Horrek eskalatzen laguntzen die ETEei.

b) Industriarako talentua. Industria-doktoretzak. BIKAINTEK.

Las iniciativas, actuaciones e instrumentos desplegados por la DTI van a contribuir a superar los retos y a alcanzar los objetivos que se fijan en el Plan de Industria Euskadi 2030 y van a impactar en los tres ejes estratégicos (más industria, mejor industria y menos emisiones) y en la práctica totalidad de las prioridades estratégica, incluidas las de adopción de la IA y ciberseguridad, la descarbonización, la economía circular, la generación de energías renovables y la adaptación al cambio climático. Las actuaciones de la DTI impactan en el desarrollo de capacidades tecnológicas disruptivas que van a posibilitar las grandes transiciones de la industria vasca, fortaleciendo y fomentando su competitividad.

Las iniciativas que pone en marcha la DTI se estructuran en 3 pilares, enmarcados en el bloque de «La operacionalización del Plan de Industria a través de los Proyectos Transformadores»:

1. PROYECTOS TRANSFORMADORES

Contribuyen de manera directa a la consecución de una o varias de las prioridades estratégicas establecidas en el Plan, son palancas estratégicas orientadas a activar transformaciones estructurales y sostenibles en el tejido productivo vasco.

Los Proyectos Transformadores responden a la necesidad de ser proactivos, colaborativos y extremadamente adaptables para abordar la transformación industrial en un contexto complejo y rápidamente cambiante. Responden a una dinámica en la que la selección de estos estará abierta a la incorporación de nuevos Proyectos Transformadores fruto de los procesos de captación e identificación constante.

2. AYUDAS Y SERVICIOS A LA INDUSTRIA

La figura de «Proyectos Transformadores» introducida en este plan se verá complementada por instrumentos previamente desarrollados en los últimos años, los cuales han demostrado ser fundamentales para sostener y mejorar la actividad industrial y responder con agilidad a las necesidades del tejido empresarial, apostando por la simplificación y desburocratización.

Como consecuencia directa de este Plan de Industria Euskadi 2030, se desarrollarán actualizaciones de las ayudas e instrumentos para el acompañamiento efectivo de los Proyectos Transformadores.

1. Mejor Industria. Aumentar el nivel tecnológico innovador de las empresas y Atraer y desarrollar nuevo talento a la industria.

a) I+D empresarial. Proyectos Transformadores, Estratégicos y Competitivos. HAZITEK.

Al apoyar la investigación y desarrollo en las empresas, se impulsa su capacidad de innovación, lo que lleva a la creación de nuevos productos, servicios y procesos, facilitando su crecimiento y competitividad en el mercado global. Esto ayuda a las PYMES a escalar.

b) Talento para la industria. Doctorados Industriales. BIKAINTEK.

Enpresetan talentu oso kualifikatua sartzeak I+Gko taldeak indartzen ditu, berritzeko gaitasuna handitzen du eta barne-ezagutza sortzea sustatzen du, industria sendoagoa eta errotuagoa garatzeko funtsezkoa baita.

2. Industria gehiago eta hobea. Gure sektore estrategikoetan balio-kateak osatzea eta azpiegitura aurreratuak sustatzea.

a) EMAITEK Industria Hobea.

Teknologia bideratzaileak. Gure zentro teknologikoen jarduera sustatzea funtsezkoa da ezagutza sortzeko eta industriara transferitu beharreko bikaintasun teknologikoa lortzeko.

b) Lankidetza-proiektuak. ELKARTEK. IRABAZI eta HAZI sektoreak

Elkarlaneko ikerketa IRABAZI eta HAZI sektore estrategikoetan, ZTBESko eragileen eta enpresen arteko baterako proiektuak bultzatuz, ikerketa industria-premiekin bat datorrela ziurtatuz eta emaitzen transferentzia sustatuz.

3. PROIEKTU ERALDATZAILEEI LAGUNTZEKO EKIMENAK

Lankidetza publiko-pribatuko proiektu eraldatzaileek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragile garrantzitsuen euskarria izango dute.

1. Basque Research and Technology Alliance, BRTA.

Eskaintza teknologikoko eragileen arteko lankidetza bultzatzean duen zeregin garrantzitsua nabarmentzen da, baita balorizaziora bideratuta egotea ere, start-upak sortzea erraztuz eta teknologia aurreratua enpresetara transferitzea azkartuz.

2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, ZTBES. Erregistroa.

Sarean lan egiten duten eta ikerketa espezializatu eta bikaina egiten duten teknologia-, zientzia- eta berrikuntza-erakundeen arteko lankidetza indartzea, emaitzak euskal enpresei transferitzeko modukoak izanik.

3. I+G+b nazioartekotzea, Europako Esparru Programan parte hartzea.

Mugaz gaindiko lankidetza eta Europako proiektuetan parte hartzea sustatzen du (Horizonte Europa), eta horrek euskal industriaren lehiakortasun globala hobetzen du eta ezagutza eta kanpoko baliabideak erakartzen ditu.

4. Laguntza-eragileei laguntzea.

Enpresen eta ikerketa-eragileen arteko elkarrekintza eta lankidetza errazten dute, eta funtsezkoak dira I+G+b ekoizpen-sarera iristeko.

a) Akordioak Innobasquerekin eta Elhuyarrekin.

b) Physics Center y ESS Bilbao.

La incorporación de talento altamente cualificado a las empresas fortalece sus equipos de I+D, aumenta su capacidad innovadora y fomenta la creación de conocimiento interno, crucial para el desarrollo de una industria más robusta y arraigada.

2. Más y Mejor Industria. Completar las cadenas de valor en nuestros sectores estratégicos y Promover infraestructuras avanzadas.

a) EMAITEK Industria Hobea.

Tecnologías facilitadoras. Fomentar la actividad de nuestros centros tecnológicos es esencial para la generación de conocimiento y para alcanzar la excelencia tecnológica que debe ser transferida a la industria.

b) Proyectos Colaborativos. ELKARTEK. Sectores IRABAZI y HAZI

Investigación colaborativa en los sectores estratégicos IRABAZI y HAZI, impulsando proyectos conjuntos entre agentes de la RVCTI y empresas, asegurando que la investigación se alinee con las necesidades industriales y promoviendo la transferencia de resultados.

3. INICIATIVAS DE SOPORTE A LOS PROYECTOS TRANSFORMADORES

Los Proyectos Transformadores de colaboración público- privada van a contar con el soporte de agentes relevantes del Sistema Vasco de Ciencias, Tecnología e Innovación.

1. Basque Research and Technology Alliance, BRTA.

Destaca su papel relevante en el impulso de la colaboración entre los agentes de la oferta tecnológica, su orientación a la valorización, facilitando la creación de start-ups y acelerando la transferencia de tecnología avanzada a las empresas.

2. Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovacion, RVCTI. Registro.

Fortalecimiento de la colaboración entre el conjunto de entidades tecnológicas, científicas y de innovación que, trabajando en red, realizan una investigación especializada y excelente, con resultados transferible a las empresas vascas.

3. Internacionalización de la I+D+i, participación en Programa Marco Europeo.

Promueve la colaboración transfronteriza y la participación en proyectos europeos (Horizonte Europa), lo que mejora la competitividad global de la industria vasca y atrae conocimiento y recursos externos.

4. Apoyo a agentes de soporte.

Facilitan la interacción y colaboración entre las empresas y los agentes de investigación, y son cruciales para que la I+D+i llegue al tejido productivo.

a) Acuerdos con Innobasque y con Elhuyar.

b) Physics Center y ESS Bilbao.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
ADIERAZLE OROKORRAK		**INDICADORES GENERALES**
1. I+Gko Inbertsioan laguntzea.		1. Apoyo a la Inversión en I+D.
I+G/BPG.	**%2,35**	I+D/PIB.
Teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioaren %.	**%52,50**	% de exportación de productos de tecnología media y alta.
Industria-berrikuntzako inbertsioa (Industria-enpresen berrikuntzako gastua - fakturazioaren %).	**%4,50**	Inversión en innovación industrial (Gasto en innovación empresas industriales - % de facturación).
Industria-enpresen produktu berrien salmentak (industria-enpresen merkaturako produktu berrien salmenten %).	**%7,90**	Ventas de productos nuevos de empresas industriales (% de ventas de productos nuevos para el mercado empresas industriales).
1. EKIMEN ERALDATZAILEAK		**1. INICIATIVAS TRANSFORMADORAS**
Gainditutako PEak.	**4**	PTs aprobados.
PEek eragindako inbertsioa.	**MILL100**	Inversión inducida por los PTs.
2. INDUSTRIARAKO LAGUNTZAK ETA ZERBITZUAK		**2. AYUDAS Y SERVICIOS A LA INDUSTRIA**
1. Industria hobea. Enpresen maila teknologiko berritzailea handitzea eta industriara talentu berria erakartzea eta garatzea.		1. Mejor Industria. Aumentar el nivel tecnológico innovador de las empresas y Atraer y desarrollar nuevo talento a la industria.
a) Enpresen I+G. Proiektu eraldatzaileak, estrategikoak eta lehiakorrak. HAZITEK.		a) I+D empresarial. Proyectos Transformadores, Estratégicos y Competitivos. HAZITEK.
Aurkeztutako proiektu eraldatzaileen kop.	**6**	N. proyectos transformadores presentados.
Lagundutako proiektu eraldatzaileen kop.	**6**	N. proyectos transformadores apoyados.
Proiektu eraldatzaileak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	**40**	N. empresas con proyectos transformadores presentadas.
kop.Proiektu eraldatzaileak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	**40**	N. empresas con proyectos transformadores apoyadas.
Aurkeztutako proiektu estrategikoen kop.	**50**	N. proyectos estratégicos presentados.
Lagundutako proiektu estrategikoen kop.	**30**	N. proyectos estratégicos apoyados.
Proiektu estrategikoak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	**250**	N. empresas con proyectos estratégicos presentadas.
Proiektu estrategikoak dituzten lagundutako enpresen kop.	**160**	N. empresas con proyectos estratégicos apoyadas.
Aurkeztutako proiektu lehiakorren kop.	**900**	N. proyectos competitivos presentados.
Proiektu lehiakorrak dituzten aurkeztutako enpresen kop.	**600**	N. proyectos competitivos apoyados.
Proiektu lehiakorrak dituzten lagundutako enpresen kop.	**850**	N. empresas con proyectos competitivos presentadas.
Proiektu lehiakorrak dituzten lagundutako enpresen kop.	**550**	N. empresas con proyectos competitivos apoyadas.
HAZITEKi aurkeztutako aurrekontua, guztira.	**MILL750**	Presupuesto total presentado a HAZITEK.
HAZITEK onartutako aurrekontua guztira (eragindako inbertsioa).	**MILL400**	Presupuesto total aprobado (inversión inducida) en HAZITEK.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
HAZITEKen eraldatzekoei lotutako onartutako aurrekontua guztira.	**MILL150**	Presupuesto total aprobado vinculado a transformadores en HAZITEK.
b) Industriarako talentua. Industria doktoretzak. BIKAINTEK.		b) Talento para la industria. Doctorados Industriales. BIKAINTEK.
Lagundutako proiektuen kopurua (doktoreak eta doktoregoak kontratatzea).	**61**	N. de proyectos apoyados (contrataciones de personas doctoras y doctorandas).
Doktoreak eta doktoregoak kontratatuta lagundutako enpresen kopurua.	**39**	N. de empresas apoyadas con contrataciones de personas doctoras y doctorandas.
Doktoreen eta doktoregoen kontratazioekin lagundutako ZTBESko agenteen kopurua.	**11**	N. de agentes de la RVCTI apoyados con contrataciones de personas doctoras y doctorandas.
Kontratatutako emakume doktore eta doktoregoen kopurua.	**29**	N de Mujeres contratadas doctoras y doctorandas.
Kontratatutako gizon doktore eta doktoregoen kopurua.	**32**	N de Hombres contratados doctores y doctorandos.
Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa).	**MILL7**	Presupuesto total aprobado (inversión inducida).
2. Industria gehiago eta hobea. Gure sektore estrategikoetan balio-kateak osatzea eta azpiegitura aurreratuak sustatzea.		2. Mas y Mejor Industria. Completar las cadenas de valor en nuestros sectores estratégicos y Promover Infraestructuras avanzadas.
a) EMAITEK Industria Hobea.		a) EMAITEK Industria Hobea.
Lagundutako zentroen kop.	**11**	N de centros apoyados.
Lagundutako Zentroetako Aginte Taularen batez besteko betetze-maila.	**80**	Grado Medio de cumplimiento del Cuadro de Mando de Centros apoyados.
Proiektu Eraldatzaileei Egindako Ekarpen Teknologikoa (I+G diru-sarreren gaineko %).	**%5**	Contribución Tecnológica a Proyectos Transformadores (% sobre ingresos I+D).
Sustatutako startupak (kop./EDPko I+Gko 100 langileko.	**1**	Startups impulsadas (Nº/100 empl.I+D EDP).
I+Grako nazioarteko finantzaketa publikoaren erakartzea (I+G diru-sarreren gaineko %).	**%15**	Atracción de financiación pública internacional para la I+D (% sobre ingresos I+D).
b) ELKARTEK Lankidetza Proiektuak.		b) Proyectos Colaborativos ELKARTEK.
Aurkeztutako arlo estrategikoetako lankidetza-proiektuen kop.	**75**	N. proyectos colaborativos en áreas estratégicas presentados.
Lagundutako arlo estrategikoetako lankidetza-proiektuen kop.	**30**	N. proyectos colaborativos en áreas estratégicas apoyados.
Industria-potentzial handiko proiektu lagunduen kop.	**10**	N. proyectos con alto potencial industrial apoyados.
Interes bereziko ekintza lagunduen kop.	**5**	N. acciones de especial interés apoyadas.
Lagundutako ZTBESeko eragileen kop.	**55**	N. de agentes de la RVCTI apoyados.
Aurkeztutako aurrekontua, guztira.	**MILL150**	Presupuesto total presentado.
Onartutako aurrekontua, guztira (eragindako inbertsioa).	**MILL46**	Presupuesto total aprobado (inversión inducida).
ELKARTEKen proiektu eraldatzaileei lotutako onartutako aurrekontu osoa.	**MILL23**	Presupuesto total aprobado vinculado a proyectos transformadores en ELKARTEK.
3. PROIEKTU ERALDATZAILEEI LAGUNTZEKO EKIMENAK		**3. INICIATIVAS DE SOPORTE A LOS PROYECTOS TRANSFORMADORES**

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. Basque Research and Technology Alliance, BRTA.		1. Basque Research and Technology Alliance, BRTA.
Proiektu Eraldatzaileak lankidetzan.	**4**	Proyectos Transformadores en colaboración.
2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, ZTBES.		2. Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, RVCTI.
Erregistroa Agenteak.	**5**	Registro Agentes.
3. I+G+B nazioartekotzea, Europako Esparru Programan parte hartzea.		3. Internacionalización de la I+D+I, participación en Programa Marco Europeo.
Infodays Jardunaldiak.	**10**	Jornadas Infodays.
4. Laguntza-eragileei laguntzea:		4. Apoyo a agentes de soporte:
Akordioa Elhuyarrekin.	**1**	Acuerdo con Elhuyar.
Physics Center y ESS Bilbao.	**2**	Physics Center y ESS Bilbao.

PROGRAMA

5415 ERALDAKETA DIGITALA ETA EKINTZAILETZA BERRITZAILE

ARDURADUNA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
ERALDAKETA DIGITALAREN ZUZENDARITZA
EKINTZAILETZA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ZUZENDARITZA

PROGRAMA

5415 TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y EMPRENDIMIENTO INNOVADOR

RESPONSABLE

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
DIRECCIÓN DE TRANSFORMACIÓN DIGITAL
DIRECCIÓN DE EMPRENDIMIENTO E INTERNACIONALIZACIÓN

MEMORIA

1. ERALDAKETA DIGITALA

XIII. Legegintzaldiko 2024-2028 Gobernu Programaren arabera, beharrezkoa da ekonomia berriaren aukerak bultzatzea, industria-sare moderno, dinamiko, garatu eta jasangarria bultzatzeko. «Digitalizazioari eta adimen artifizialari» buruzko jarduera-ildo espezifiko bat eskaintzen dio, 84tik 87ra bitarteko konpromisoak biltzen dituena.

Euskadi 2030 Industria Plana funtsezko tresna da euskal industriaren egungo erronkei aurre egiteko, trantsizio energetikoak eta eraldaketa digitalak, Europako autonomia estrategikoa indartzeko beharrak eta lehia global gero eta handiagoak markatutako agertoki batean.

«Industria Onena» ardatz estrategikoan, Euskadi 2030 Industria Planak euskal industriaren teknologia- eta antolaketa-kalitatea handitzea du helburu. Industria hobea, aldaketei aurrea hartzeko, teknologia disruptiboak hartzeko, prozesuetan digitalizazioa eta zibersegurtasuna integratzeko, talentua erakartzeko eta atxikitzeko, eta antolaketa-modu jasangarriagoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak lortzeko.

Planak lehentasun estrategikoen multzo bat identifikatzen du. Eraldaketa digitalaren esparruan, honako hiru lehentasun hauek nabarmentzen dira, gauzatu beharreko jarduerak inspiratuko dituztenak:

- Adimen artifiziala eta zibersegurtasuna sustatzea: lehentasun honen helburua da adimen artifiziala benetan hartzea euskal enpresetan, ekoizpen-prozesuetatik hasi eta mantentze, logistika edo diseinuraino. Era berean, ziberresilientzia industriala indartu nahi da mehatxu digitalen testuinguru gero eta handiago baten aurrean, bereziki ETEentzat eta sektore kritikoentzat.

1. TRANSFORMACION DIGITAL

El Programa de Gobierno 2024-2028 de la XIII Legislatura señala la necesidad de propiciar las oportunidades de la nueva economía para favorecer un tejido industrial moderno, dinámico, desarrollado y sostenible. El programa dedica una línea de actuación específica relativa a «Digitalización e Inteligencia Artificial», que engloba los compromisos del 84 al 87.

El Plan de Industria Euskadi 2030 se concibe como una herramienta clave para afrontar los retos actuales de la industria vasca en un escenario marcado por la transición energética y la transformación digital, la necesidad de fortalecer la autonomía estratégica europea y la creciente competencia global.

En el eje estratégico de «Mejor Industria», el Plan de Industria-Euskadi 2030 persigue elevar la calidad tecnológica y organizativa de la industria vasca. Una industria mejor preparada para anticiparse a los cambios, adoptar tecnologías disruptivas, integrar digitalización y ciberseguridad en sus procesos, atraer y retener talento, y avanzar hacia formas de organización más sostenibles, inclusivas y resilientes.

El Plan identifica un conjunto de prioridades estratégicas. En el ámbito de la transformación digital, sobresalen las siguientes tres prioridades que van a inspirar las actuaciones a ejecutar:

Industria Segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, instalazioen segurtasun kontrola aldatu egiten da. Kontrol hori Ikuskapen sistematikoen kanpainen bidez edo industria-segurtasunari buruzko araudiak eragindako instalazioen funtzionamenduan esku hartzen duten agente guztien laginketa bidez egingo da, aurrez aurreko ikuskapenen bidez instalazioen kontrola oinarri hartuta, eta, batez ere, duela urte batzuk abian jarri zirela jakinarazi zuten instalazioak nabarmenduta.

Egiaztatuko da titularrak eduki behar duen dokumentazioa erregelamendu bidez eskatutakoarekin bat datorrela ez ezik, haren benetako egoera ere egiaztatuko da, bai eta esku hartzen duten agenteek (instalatzaileek, mantentze-lanetakoek, etab.) araudia betetzen dutela ere.

Martxan dauden instalazioek segurtasun-baldintzak betetzen jarraitzen dutela kontrolatzeko, aldizkako ikuskapenen jarraipena mantenduko da, aurretik ikuskapenik egin ez duten antzinatasun handiagoa eta arrisku handieneko instalazioak bereziki nabarmenduta, eta ikuskapen horietan antzemandako akatsen zuzenketa kontrolatuta.

Istripu larriei buruzko araudiak eragindako enpresen segurtasun-txostenak kontrolatzeko araubide berria hasi denez, ebaluazioa Administrazioak berak egin dezan, txosten horiek ebaluatzen dituzten erakundeen laguntzarekin, instalazio horien gaineko kontrol espezifikoa egingo da.

1. SEGURIDAD INDUSTRIAL

1. Control del cumplimiento reglamentario.

La entrada en vigor del Decreto 81/2020, de 30 de junio, de Seguridad Industrial modificó el control de las instalaciones. Éste se realizará mediante campañas de auditorías sistemáticas o mediante muestreo sobre todos los agentes intervinientes en el funcionamiento de las instalaciones afectadas por la reglamentación de seguridad industrial, basándose en el control de las propias instalaciones mediante inspecciones presenciales, e incidiendo sobre todo en aquellas cuya puesta en funcionamiento fue comunicada hace ya unos años.

Se comprobará no sólo que la documentación de la que debe disponer la persona titular se corresponde con la reglamentariamente exigida, sino también el estado real de la misma, así como el cumplimiento reglamentario por parte de los agentes intervinientes (personal instalador, de mantenimiento, etc.).

Para controlar que las instalaciones en funcionamiento siguen manteniendo los requisitos de seguridad, se mantendrá el seguimiento de la realización de las inspecciones periódicas, haciendo especial hincapié en aquellas instalaciones de mayor riesgo y antigüedad que no han pasado inspecciones anteriormente, y controlando la corrección de las deficiencias que se hayan detectado en dichas inspecciones.

Habiéndose iniciado el nuevo régimen de control de los informes de seguridad de las empresas afectadas por la reglamentación de accidentes graves, de forma que la evaluación sea realizada por la propia Administración con la colaboración de entidades evaluadoras de dichos informes; se realizará un control específico sobre estas instalaciones.

Era berean, kontrolak egingo dira inskribatu gabeko instalazioak detektatzeko.

2. Jarduera arauemailea.

Agindu bidez, 81/2020 Dekretua osatuko duten lege-garapen egokiak egingo dira, dekretua behar bezala eta osorik aplikatzeko beharrezkoak diren alderdiak zehaztuz.

ATO AEM-1 «Igogailuak» berria onartzen duen 355/2024 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren, 5/2014 Dekretua egokitu eta ordeztuko duen dekretu bat izapidetuko da.

Gas instalazioei buruzko erregelamendu berriaren azken zirriborroa eskuragarri dagoenez, eta 2027. urtearen hasieran onartzea espero denez, gasaren arauzko arloan indarrean dagoen araudia egokitzeko izapideak hasiko dira.

Industria-segurtasuneko erregelamendu teknikoetan beharrezkoak diren arau-aldaketekin jarraituko da, segurtasuneko eskakizun eta baldintza teknikoak areagotzeko eta industria-segurtasuneko agenteei jarduteko irizpideak emateko.

3. Sentsibilizazio-kanpainak.

Gas-instalazioen titularrak eta erabiltzaileak sentsibilizatzeko informazio-kanpaina egiten jarraituko da, urte honetatik aurrera enpresa instalatzaileek eta banatzaileek egin ditzaketen ikuskapenen garrantziaz jabetzeko.

Industria Segurtasunari buruzko 81/2020 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz erregelamenduz ezarritako dokumentazioa zaindu eta Administrazioaren esku jartzearen inguruan titularrek duten erantzukizunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira.

Sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da gailu eta instalazio termikoak behar bezala mantentzearen garrantziari buruz.

2. INDUSTRIA ADMINISTRAZIOA

1. Administrazioaren kontrola.

Martxoaren 17ko 29/2015 Dekretuan jasotako jarduerak edo instalazioak egiten dituzten enpresa, erakunde eta establezimendu guztien inskribapenak, bajak edo aldaketak ofizioz egingo dira Euskadiko Industria Erregistroan. 2027an Erregistroaren kudeaketa elektronikoa ahalbidetzeko tresnaren eraikuntza hasiko da.

Jabetza industrialaren arloan (patente, eredu, diseinu industrial, marka, edo merkataritza-izenei dagokionez), partikularrek Patente eta Marken Espainiako Bulegora zuzendutako eskaerak izapidetzen jarraituko dira, baita artisau- eta industria-produktuen adierazpen geografiakoak babesteko eskaerak ere.

De igual forma, se realizarán controles para detectar la existencia de posibles instalaciones no inscritas.

2. Actividad Normativa.

Mediante Orden, se realizarán los desarrollos legislativos pertinentes que complementen el Decreto 81/2020 concretando aquellos aspectos necesarios para la correcta y completa aplicación de los mismos.

Tras la entrada en vigor del Real Decreto 355/2024 por el que se aprueba la nueva ITC AEM-1 «Ascensores», se tramitará un decreto que adapte y sustituya el Decreto 5/2014.

Dado que se dispone del último borrador del nuevo reglamento de gas que se espera se apruebe a principios de 2027, se iniciarán los trámites para la adecuación de la normativa vigente en el área reglamentaria de gas.

Se continuará con las modificaciones normativas necesarias en los diferentes reglamentos técnicos de Seguridad Industrial para incrementar los requisitos y condiciones técnicas de seguridad y para dar criterios de actuación a los diferentes agentes de la seguridad industrial.

3. Campañas de sensibilización.

Se seguirá realizando la campaña informativa de sensibilización de titulares y personas usuarias de instalaciones de gas para concienciarles de la importancia de las inspecciones que a partir de este año pueden hacer las empresas instaladoras, además de las distribuidoras.

Se realizarán campañas de sensibilización sobre la responsabilidad de los y las titulares en relación con la custodia y puesta a disposición de la Administración de la documentación establecida reglamentariamente, como consecuencia de la entrada en vigor del Decreto 81/2020 de Seguridad Industrial.

Se realizará una campaña de sensibilización sobre la importancia del correcto mantenimiento de los aparatos y las instalaciones térmicas.

2. ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL

1. Control de la Administración.

Se procederá de oficio a la inscripción, baja o modificación en el Registro Industrial de Euskadi, de todas las empresas, organismos y establecimientos que realicen actividades incluidas en el Decreto 29/2015, de 17 de marzo. En el 2027 se iniciará la construcción del aplicativo para la gestión electrónica del Registro.

En la sección de Propiedad Industrial (patentes, modelos, diseños industriales, marcas, nombres comerciales) se seguirán tramitando las solicitudes cursadas por particulares con destino a la Oficina Española de Patentes y Marcas, así como las solicitudes de protección de indicaciones geográficas de productos artesanales e industriales.

Ibilgailuen arloari dagokienez, honako hauek egingo dira: ibilgailuaren identifikazioari eragiten dioten erreforma-espedienteak, ATPn (kutxa isotermoak) eta ATRn (ontziak eta zisternak) homologatzeko pasahitzak esleitu, kasuan kasuko Baimendutako Kontrol Erakundearen dokumentazio teknikoa kontrolatu, IAT estazioetako auditoretzak eta aurrekarien, kexen eta erreklamazioen eskaerak kudeatzea. 2027an ibilgailuei buruzko espedienteen kudeaketa elektronikorako aplikazioa martxan izatea espero da.

2027an Zarauzko IAT estazio berria eraikitzeko lanak amaituta izatea espero da.

Suteetatik babesteko instalazioen eta makinetako eta produktuetako segurtasunaren sekzioei dagokienez, horiek legeztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko lanekin jarraituko da.

Gasolina-zerbitzuguneetan, hornidura-unitateetan, hirugarrenak hornitzen dituzten sozietateetan eta autonomia-erkidego honetan kokatutako operadoreen biltegiratze-zentroetan urtero egiten diren petrolio-produktuak kontrolatzeko kanpainarekin jarraituko da.

Egiaztapen Metrologikorako Baimendutako Erakundeen (EMBE) auditoretzak egiten jarraituko da, eta zaintza- eta kontrol-kanpainak egingo dira metrologia-kontrola duten ekipoetan (taximetroak, hornigailuak, manometroak, pisatzeko tresnak, etab.).

EB nahiz Estatu mailan merkatua zaintzeko antolatzen diren kanpainetan parte hartuko da, eta arauzko ez betetzeak izan ditzaketen industria-produktuen eta makinen azterketa ere egingo da.

Euskal industria-sarea laguntzeko lanarekin jarraituko da, sari hori garatzen eta hobetzen jarraitzeko.

2. Jarduera araumailea.

Agindu bidez, bidezko lege-garapenak egingo dira, Administrazio honek metrologia-kontrolaren arloan egiten dituen jarduerak arautzeko.

Agindu bidez eguneratuko da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko martxoaren 14ko Agindua, 513/2017 Errege Dekretuak arautzen dituen suteen aurkako babes-instalazioen esparruko zenbait alderdi garatzen dituena.

3. INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK

Aplikatzekoa den araudia betetzen dela kontrolatzeko, instalazio, aldaketa eta klausula berriak ebaluatzen jarraituko da, beti ere horien administrazio-baimena nahitaezkoa baldin bada. Halaber, zaintza- eta kontrol-lanak egingo dira aktibitate handiko iturriak dituzten instalazio erradioaktiboen % 100, 2. kategoriako instalazioen % 50, 3. kategoriako instalazioen % 33 eta erradiodiagnostiko medikoko instalazioen lagin adierazgarri bat ikuskatuta.

Dentro de la sección de vehículos, se continuará con la gestión de los expedientes de reforma que afecten a la identificación del vehículo, la asignación de contraseñas de homologación en ATP (cajas isotermas) y ATR (envases y cisternas), el control de la documentación técnica remitida por los organismos de control, las auditorías de las estaciones ITV y con la gestión de solicitudes de antecedentes, quejas y reclamaciones. En el 2027 se espera tener operativo el aplicativo para la gestión electrónica de expedientes relativos a vehículos.

En el 2027 se espera tener finalizada la nueva estación ITV de Zarautz.

En las secciones de instalaciones de protección contra incendios, seguridad en máquinas y productos se continuará con las labores de legalización, control e inspección de estas.

Se continuará con las campañas anuales de control de productos petrolíferos expedidos en estaciones de servicio, unidades de suministro, sociedades que suministren a terceros y centros de almacenamiento de los operadores ubicados en esta comunidad autónoma.

Se continuará con las auditorías de los Organismos Autorizados de Verificación Metrológica, así como con las campañas de vigilancia y control de equipos sometidos a control metrológico (taxímetros, surtidores, manómetros, instrumentos de pesaje, etc.).

Se participará en campañas de vigilancia de mercado organizadas tanto a nivel de la UE, como del Estado, y se vigilarán productos industriales y máquinas susceptibles de no conformidades reglamentarias.

También se continuará apoyando al tejido industrial vasco, avanzando en su desarrollo y mejora.

2. Desarrollo normativo.

Mediante Orden, se realizarán los desarrollos legislativos pertinentes que regulen las actuaciones de esta Administración en materia de control metrológico.

Mediante Orden, se actualizará la Orden de 14 de marzo de 2023, de la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se desarrollan determinados aspectos en el ámbito de las instalaciones de protección contra incendios reguladas por Real Decreto 513/2017.

3. INSTALACIONES RADIACTIVAS

Para controlar el cumplimiento de la reglamentación aplicable, se continuará evaluando nuevas instalaciones, modificaciones y clausuras, cuya autorización administrativa es obligatoria. Asimismo, se realizarán tareas de vigilancia y control mediante la inspección del 100% de las instalaciones radiactivas con fuentes de alta actividad, el 50% de las de 2ª categoría, el 33% de las de 3ª categoría y una muestra representativa de las instalaciones de radiodiagnóstico médico.

Material nuklearren eta erradioaktiboen garraioaren arloan kontrola egingo da, EAEn salgai mota horren ohiko garraio-moten artean banatuta dauden ikuskapenen bidez.

Instalazio erradioaktiboetako operazio-langileen prestakuntza eta akreditazioari dagokionez, jarduera hauek egingo dira:

- 2. eta 3. mailako instalazio erradioaktiboen ikuskatzaile edo operadore lizentziei dagokien eskabideak izapidetzea.

- Lizentziak lortzeko aurkeztutako ikastaroak eta prestakuntza-programak homologatzea.

- EAEn emandako prestakuntza-ikastaroen ikuskatzea eta kontrolatzea, proba egokiak egitea barne, langileak ikastaroak aprobetxatzen ari diren ebaluatzeko.

Ingurumen zaintza erradiologikoa Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren, EAEren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen baten bidez garatuko da, 2025eko akordio berriaren ondoren eta Bilboko Ingeniaritza Eskolaren laguntza teknologikoarekin. Era berean, larrialdi erradiologikoetarako alerta-sarea hedatzen jarraituko da, gaur egun hamaika detekzio-estazioz osatua.

Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin lankidetzan jarraituko da, larrialdi erradiologikoen arloan.

Segurtasun eta eraginkortasun estandarrak betetzeak, hobekuntzei, teknologia berriei eta prestakuntza espezializatuari buruzko aholkularitzarekin batera, industria indartzen du eta etorkizuneko erronketarako prestatzen du. Era berean, material erradioaktiboak maneiatzeko teknologia eta praktika seguruak ezartzeak emisio posibleak murrizten ditu eta etorkizun iraunkorragoa errazten du.

Eginkizun gehienak Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean indarrean dagoen mandatu-hitzarmenak ezarritako legezko esparruaren barruan beteko dira.

Se realizará un control en el área de transporte de materiales nucleares y radiactivos, mediante diversas inspecciones distribuidas entre los diferentes tipos de transporte habituales de este tipo de mercancías en la CAPV.

En cuanto a la formación y acreditación del personal de operación en instalaciones radiactivas, se realizarán las siguientes actividades:

- Tramitación de solicitudes de licencias de supervisor/a u operador/a de instalaciones radiactivas de 2ª y 3ª categoría

- Homologación de cursos y programas de formación presentados para la obtención de licencias.

- Inspección y control de los cursos de formación impartidos en la CAPV, incluyendo la realización de pruebas con objeto de evaluar el aprovechamiento de los cursos por parte del personal asistente.

La vigilancia radiológica ambiental se desarrollará mediante un convenio entre el Consejo de Seguridad Nuclear, la CAPV y la Universidad del País Vasco, tras el nuevo acuerdo de 2025 y con apoyo tecnológico de la Escuela de Ingeniería de Bilbao. Asimismo, continuará el despliegue de la red de alerta para emergencias radiológicas, actualmente formada por once estaciones de detección.

Se continuará con la colaboración con la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Departamento de Seguridad, dentro del área de emergencias radiológicas.

El cumplimiento de estándares de seguridad y eficiencia, junto con el asesoramiento en mejoras, nuevas tecnologías y formación especializada, fortalece la industria y la prepara para futuros desafíos. Asimismo, la implantación de tecnologías y prácticas seguras en el manejo de materiales radiactivos reduce posibles emisiones y favorece un futuro más sostenible.

La mayor parte de las funciones se ejecutarán dentro del marco legal establecido por el Convenio de Encomienda vigente entre el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) y la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. INDUSTRIA SEGURTASUNA		**1. SEGURIDAD INDUSTRIAL**

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Industria-segurtasuneko arauak bete behar dituzten ekipo, tresna eta instalazioen segurtasun-mailak kontrolatzea, istripu-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin. Helburu hori lortzeko, bi gauza egingo ditugu: alde batetik, martxan jarriko direla jakinarazten zaizkigun instalazioen espediente guztiak kontrolatzea formalki, eta haien ehuneko esanguratsu batean ausazko ikuskapenak egitea; eta, beste alde batetik, kontrolatzea ea egiten diren aldian-aldian egin beharreko ikuskaritzak, eta ea instalazioetan edo ekipoetan agertzen diren akatsak zuzentzen diren.		Controlar los niveles de seguridad de los equipos, aparatos e instalaciones sometidas a la reglamentación de seguridad industrial, con el fin de minimizar el riesgo potencial de accidentes en las mismas. Para lograr el citado objetivo se llevarán a cabo dos actuaciones diferenciadas; por una parte, el control formal de todos los expedientes de las distintas instalaciones de las que se comunique su puesta en servicio, así como la realización de inspecciones aleatorias de un porcentaje significativo de las mismas, y, por otra parte, el control de la realización de las inspecciones periódicas y de la subsanación de los defectos que pudieran presentar las instalaciones o equipos en servicio.
Hona hemen, jarraian, instalazio-mota bakoitzetik 2027an zenbat legeztatzea eta haietako zenbat ikuskatzea aurreikusten dugun:		Las previsiones para el ejercicio 2027, en cuanto al número de instalaciones a legalizar y a las inspecciones a realizar de las mismas, serán las siguientes en función de los distintos tipos de instalaciones:
1. Presio-tresnak.		1. Equipos a presión.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**400**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**20**	Previsión de inspecciones a realizar.
2. Produktu kimikoen biltegiratzea.		2. Almacenamientos de productos químicos.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**100**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**30**	Previsión de inspecciones a realizar.
3. Kimiko-istripu larrien prebentzioa.		3. Prevención de accidentes químicos graves.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**20**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako Ikuskapenak.	**20**	Previsión de inspecciones a realizar.
4. Gas-instalazioak.		4. Instalaciones de gas.
a) PGL deposituak.		a) Depósitos de almacenamiento GLP.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**150**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**40**	Previsión de inspecciones a realizar.
b) Gas-instalazio hartzaileak.		b) Instalaciones receptoras de gas.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**250**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**60**	Previsión de inspecciones a realizar.
c) PGL-ontziak banatzeko biltegiak.		c) Almacenamiento de envases de GLP para su distribución.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**250**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**60**	Previsión de inspecciones a realizar.
5. Hozteko instalazioak.		5. Instalaciones frigoríficas.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**80**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Aurreikusitako ikuskapenak.	**20**	Previsión de inspecciones a realizar.
6. Jasogailuak.		6. Aparatos elevadores.
a) Igogailuak.		a) Ascensores.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**2.500**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**300**	Previsión de inspecciones a realizar.
b) Dorre-garabiak.		b) Grúas torre.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**300**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**50**	Previsión de inspecciones a realizar.
7. Instalazio termikoak.		7. Instalaciones térmicas.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**5.000**	Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**150**	Previsión de inspecciones a realizar.
8. Industria-instalazioen segurtasun-auditoretza egitea, baita eragile laguntzaileenak ere (enpresa instalatzaile eta mantentzaile egokituak, gas-kontrolerako erakunde eta abarrenak). Horretarako instalazio-mota hautatuko dira, erregelamendu-eremutako desberdinekoak, hain zuzen ere.		8. Realización de auditorías de seguridad de instalaciones industriales, así como de agentes colaboradores (empresas instaladoras y mantenedoras habilitadas, suministradoras de gas, organismos de control, etc.), seleccionándose para ello instalaciones diferentes correspondientes a distintos campos reglamentarios.
2. INDUSTRIA ADMINISTRAZIOA		**2. ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL**
Metrologia eta produktuen segurtasuna osatzen duten zenbait arlori dagokienez, funtsezko helburua izango da sustatzea kontsumitzaileen bermeak eta eskubideak.		En relación con los distintos campos que conforman la Metrología y la Seguridad en productos, el objetivo básico consistirá en potenciar las garantías y derechos de las personas consumidoras.
Beste helburu oinarrizkoa izango da arlo honetan handitzea segurtasun maila ibilgailuetan, erregai likidoetan, suteen aurka eta makinerian.		Otro objetivo básico, en esta área, consistirá en incrementar los niveles de seguridad en vehículos, combustibles líquidos, protección contra incendios y seguridad en máquinas.
Horretarako, 2027ko ekitaldian aurreikusitako jarduerak hauexek izango dira arloen arabera:		Para ello, las previsiones de actuación en el ejercicio 2027, serán las siguientes en función de los distintos campos, así:
1. Suteen aurkako babesa.		1. Protección contra incendios.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1.800**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**250**	Previsión de inspecciones a realizar.
2. Industria-establezimenduen erregistroa.		2. Registro establecimientos industriales.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**700**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**21**	Previsión de inspecciones a realizar.
3. Industria-jabetza.		3. Propiedad industrial.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**10**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**3**	Previsión de inspecciones a realizar.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
4. Metrologia.		4. Metrología.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**125**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**100**	Previsión de inspecciones a realizar.
5. Produktuen kontrola.		5. Control productos.
a) Industria produktuen jarraipena.		a) Seguimiento productos industriales.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**50**	Previsión de expedientes a tramitar.
b) Produktu energetikoen azterketa eta egiaztapena.		b) Análisis y control de productos energéticos.
Ibilgailuentzako petrolio-produktuen aurreikuspena aztertzeke.	**200**	Previsión de productos petrolíferos para vehículos a analizar.
6. Makinen segurtasuna.		6. Seguridad máquinas.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**10**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**10**	Previsión de inspecciones a realizar.
7. Ibilgailuak.		7. Vehículos.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1.500**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako espedienteak ikuskapen teknikoarekin.	**75**	Previsión de expedientes con inspección técnica.
3. INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK		**3. INSTALACIONES RADIACTIVAS**
Instalazio erradioaktiboen eta instalazio horietako langile baimenduen prestakuntzaren kontrola; horrelako instalazioen ezaugarriak eta horiei datxekien arriskua direla-eta, segurtasun-mailak mantentzea eta areagotzea.		Control de las instalaciones radiactivas y la cualificación de su personal de operación autorizado; dadas las características de las mismas y su riesgo inherente, mantener e incrementar sus niveles de seguridad.
Horretarako, hauexek dira 2027ko ekitaldirako aurreikusitako jarduerak:		Para ello, las previsiones de actuación para el ejercicio 2027, son las siguientes:
1. Medikuntzako X izpiak.		1. RX Médicas.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**300**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**32**	Previsión de inspecciones a realizar.
Aurreikusitako aktak eta txostenak.	**42**	Previsión de actas e informes a realizar.
2. 2. eta 3. mailako instalazioak.		2. Instalaciones 2ª/3ª.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**19**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**91**	Previsión de inspecciones a realizar.
Aurreikusitako aktak eta txostenak.	**221**	Previsión de actas e informes a realizar.
3. Erregai nuklearra eta material erradioaktiboa garraiatzea.		3. Transporte combustible nuclear y material radiactivo.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**12**	Previsión de inspecciones a realizar.
4. X Izpietako ekipoen Salmenta eta Laguntza Teknikoko enpresak.		4. Empresas de Venta y A.T. de equipos RX.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**1**	Previsión de inspecciones a realizar.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
5. Ikuskatzaile- eta langile-lizentziak.		5. Licencias de Supervisor/a y Operador/a.
Izapidetu beharreko izapideen aurreikuspena.	**210**	Previsión de expedientes a tramitar.
6. Ikuskatzaile- eta langile-ikastaroak homologatzea.		6. Homologación de cursos de Supervisor/a y Operador/a.
Egingo diren homologazioen aurreikuspena.	**1**	Previsión de homologaciones a realizar.
7. Ikuskatzaile eta operadore prestakuntza ikastaroak.		7. Cursos de formación de Supervisor/a y Operador/a.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**5**	Previsión de inspecciones a realizar.
8. Ingurumeneko Zaintza Erradio-logikoko Estazioak.		8. Estaciones de Vigilancia Radiológica ambiental.
Urteko erabilgarritasun-ehunekoa.	**%99**	Porcentaje anual de disponibilidad.

PROGRAMA

7214 BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA

ARDURADUNA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARITZA

PROGRAMA

7214 INNOVACIÓN Y ESTRATEGIA DE COMPETITIVIDAD

RESPONSABLE

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
DIRECCIÓN DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN

MEMORIA

Industria-berrikuntza funtsezko motorra da sortzen ari diren teknologiak bizkortzeko, ezagutzan oinarritutako negozio-eredu berriak sustatzeko, berrikuntzan lankidetza publiko-pribatua bultzatzeko eta ETEek osatutako euskal ekosistemaren gaitasunak indartzeko.

Azken RIS (Regional Innovation Scoreboard) txostenaren arabera, Euskadi herrialde «oso berritzailea» da, eta Europar Batasuneko batez besteko berrikuntza gainditzen du. Berrikuntza funtsezkoa da herrialde baten garapen ekonomikorako, haren produktibitatea eta lehiakortasuna baldintzatzen dituelako, eta faktore erabakigarria delako gero eta globalizatuagoa den sistema ekonomiko batean hazkunde iraunkorra lortzeko. Eta, ondorioz, enpresetan berrikuntza bultzatzeko gure apustua indartu behar dugu, industria hobea, lehiakorragoa eta iraunkorragoa izan dadin.

Europar Batasunak berrikuntza bere lehiakortasunaren motor gisa kokatu du, Horizonte Europa, Digital Innovation Hubs edo lankidetza teknologikoen bidez. Lehentasun horrek espiritu hori bera islatzen du, euskal ekosistemara egokitua, eta ekoizpen-sarearen eraldaketa bizkortzea bilatzen du, berrikuntza irekiaren bidez, bai teknologikoan, bai prozesuetan.

Euskadi 2030 Industria Planaren (PI2030) berritasun nagusia bere gauzatzeko modua da. Horretarako, aukerak dinamizatuko dira Euskadi mailako Proiektu Eraldatzaileen bidez, industria sare berria sortzeko. Gure zeregina izango da lankidetza erraztea, laguntzea eta sustatzea.

IP2030 planaren lehentasun estrategikoen artean, «Kudeaketa aurreratua eta jasangarria sustatzea» aipatzen dugu. Lidergo publikoarekin, EAEko ETEentzako jasangarritasuna ebaluatzeko sistema bat garatzea du helburu, IGG irizpideen (ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak) arloan beren interes-taldeek egiten dituzten gero eta eskaera handiagoei eraginkortasunez erantzuteko.

La innovación industrial se posiciona como motor esencial para acelerar la adopción de tecnologías emergentes, promover nuevos modelos de negocio basados en el conocimiento, impulsar la colaboración público-privada en Innovación y fortalecer las capacidades del ecosistema vasco fundamentalmente constituido por PYMES.

El último informe RIS (Regional Innovation Scoreboard) sitúa a Euskadi como país «fuertemente innovador», superando la media de innovación de la Unión Europea. Destacamos la innovación cómo clave para el desarrollo económico de un país, al ser condicionante de su productividad y competitividad, y ser un factor determinante para lograr un crecimiento sostenible en un sistema económico cada vez más globalizado. Y, en consecuencia, debemos reforzar nuestra apuesta de impulso a la innovación en las empresas, para una mejor industria, más competitiva y sostenible.

La Unión Europea ha situado la innovación como motor de su competitividad, a través de programas como Horizonte Europa, los Digital Innovation Hubs o los partenariados tecnológicos. Esta prioridad refleja ese mismo espíritu, adaptado al ecosistema vasco, y busca acelerar la transformación del tejido productivo mediante innovación abierta, tanto tecnológica como en procesos.

La principal novedad del Plan de Industria Euskadi 2030 (PI2030) está en su ejecución, para la cual se dinamizarán oportunidades mediante los Proyectos Transformadores a nivel de Euskadi para generar nuevo tejido industrial. Será nuestro cometido el facilitar, acompañar y promover la colaboración.

Entre las prioridades estratégicas del PI2030, apuntamos «Promover la gestión avanzada y sostenible», el cual, con el liderazgo público, tiene como objeto el desarrollo de un sistema de evaluación de sostenibilidad para las pymes vascas, el cual les permita responder de forma eficaz a las crecientes demandas de sus grupos de interés en materia de criterios ESG (ambientales, sociales y gobernanza).

Testuinguru horretan, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritzak, zeregin horretan inplikazio nagusia duen organoa den aldetik, ahaleginak areagotuko ditu eta mekanismoak jarriko ditu abian gure erkidegoko enpresa-ehunaren beharrei erantzuteko, batez ere ETE industrialetan, berrikuntza sustatzeko, kudeaketa aurreratuarekin eta jasangarriarekin batera, ezagutza epe luzera aberastasun bihurtzeko gaitasun gisa ulertuta.

Berrikuntza, enpresako jarduera puntualetatik haratago, prozesu jarraitu eta iraunkor gisa ulertu behar da. Horrela, berrikuntzak berrikuntzari ekiten dioten erakundeetan sortzen dituen abantailak eta aukerak sendotzen dira, eta, horrela, modu nabarmenean koka daitezke etengabe aldatzen ari den merkatu global baten aurrean.

Berrikuntzarako sustapen- eta euskarri-helburuak lortzeko, tresna egokiak behar ditugu. Alde batetik, negozioaren produktu, zerbitzu eta/edo prozesuetako berrikuntza-proiektuak katalizatzeko eta babesteko bitartekoak izan behar ditugu; eta, bestetik, berrikuntza gaitzeko, kontzientziatzeko eta zabaltzeko jarduerak abiarazi behar ditugu.

Bestalde, beharrezkoa da berrikuntzaren aldeko konpromisoaren kultura bultzatzea gure sisteman eta eredu ekonomikoan esku hartzen duten eragile guztietan; eta, ildo horretan, aldaketaren eta berrikuntza irekiaren aldeko kultura sustatzen duten enpresa-ehuna eraldatzeko ekimenak babestea.

Beraz, egungo egoeran ezinbestekoa da gure erkidegoko industria-jardueretan berrikuntzarako laguntza publikoa mantentzea eta indartzea. Berrikuntza-jarduerei laguntzea, epe ertain eta luzeko ikuspegi batetik, behar eta aukera espezifikoei erantzuteko unean uneko berrikuntzei arreta emateaz gain, enpresen barruan gero eta sarriago eta sistematikoago eta anbizio handiagoz berritzeko gaitasunak garatzea ahalbidetuko duena.

Horretarako, 2027. urterako, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritzak zabaldutako tresna eta ekintza hauek proposatzen ditugu, 2 bloketan egituratuta daudenak («Enpresen Berrikuntza Maila Handitzea» eta «Kudeaketa Aurreratua eta Jasangarria Sustatzea»):

1. ENPRESEN BERRIKUNTZA-MAILA HANDITZEA

1 Fast Track Innobideak

Euskal industria-enpresa txiki eta ertainetan (ETEetan) berrikuntzaren materializazioa bizkortzera bideratutako laguntza-programa, ideiak, garapen teknologikoak eta hobekuntza-aukerak modu azkarrago eta eraginkorragoan produktu, prozesu eta negozio-eredu berri edo hobetu bihur daitezen sustatzeko, enpresen lehiakortasunean benetako eragina sortuz.

En este contexto, la Dirección de Tecnología e Innovación, como órgano con una implicación central en este cometido, intensificará sus esfuerzos y pondrá en marcha mecanismos para dar respuesta a las necesidades del tejido empresarial de nuestra comunidad, especialmente en las pymes industriales, para impulsar la innovación, a la par de la gestión avanzada y sostenible, entendida como la capacidad de transformar el conocimiento en riqueza a largo plazo.

La innovación, más allá de actuaciones puntuales en la empresa, debe ser entendida como un proceso continuado y sostenido en el tiempo. De esta manera se consolidan las ventajas y oportunidades que la innovación genera en las organizaciones que la acometen, y, así, pueden posicionarse de manera destacada ante un mercado global y en permanente situación de cambio.

Para alcanzar los objetivos de promoción y soporte a la innovación, precisamos disponer de los instrumentos adecuados. Por un lado, debemos disponer de los medios para catalizar y apoyar los proyectos de innovación en producto, servicio y/o procesos del negocio; y, por otro lado, poner en marcha actividades orientadas a capacitar, concienciar y difundir la innovación.

Por otra parte, es necesario impulsar la cultura de compromiso por la innovación en todos los agentes que intervienen en nuestro sistema y modelo económico; y, en esta línea, apoyar las iniciativas de trasformación en el tejido empresarial que promuevan una cultural favorable al cambio y a la innovación abierta.

Por lo tanto, es imprescindible en la coyuntura actual mantener y potenciar el apoyo público a la innovación en las actividades industriales de nuestra comunidad. Un apoyo a actividades de innovación que, desde una perspectiva de medio y largo plazo, además de atender a innovaciones de carácter puntual para responder a necesidades y oportunidades específicas, permita desarrollar capacidades dentro de las empresas para innovar cada vez de manera más frecuente y sistemática y con mayor ambición.

Para lo cual, proponemos para el año 2027 los siguientes instrumentos y acciones desplegados por la Dirección de Tecnología e Innovación, que se estructuran en 2 bloques («Aumento del Nivel Innovador de las Empresas» y «Promoción de la Gestión Avanzada y Sostenible»):

1. AUMENTO DEL NIVEL INNOVADOR DE LAS EMPRESAS

1 Fast Track Innobideak

Programa de ayudas orientado a acelerar la materialización de la innovación en las pymes industriales vascas, facilitando que las ideas, desarrollos tecnológicos y oportunidades de mejora se traduzcan de forma más rápida y efectiva en nuevos o mejores productos, procesos y modelos de negocio con impacto real en la competitividad empresarial.

Berrikuntza-proiektuei ematen zaien laguntzaz gain, programak enpresen teknologiak bereganatzeko gaitasunak indartzen ditu Basque Digital Innovation Hub (BDIH) ekimenaren laguntza espezializatuaren bidez. Horren bitartez, teknologia digital eta jasangarrien identifikazioa, esperimentazioa eta baliozkotzea errazten dira, irismen handiagoko proiektuei ekin aurretik, eta teknologiak txertatzearekin lotutako arriskuak murrizten dira.

a) FAST TRACK INNOBIDEAK programa, industria-enpresa txiki eta ertainen eta industriari lotutako zerbitzuen produktuen eta/edo prozesuaren berrikuntza sustatzera bideratua: berrikuntza aurrerakuntza teknologikoarekin bultzatuz berrikuntza horien garapena, transferentzia eta merkatura iristea bizkortzeko, berrikuntza-jarduerei laguntza integrala eskainiz, lehentasun estrategikoetan fokalizatuz eta berrikuntza-proiektuei laguntzea funtsezko ekintza osagarriekin konbinatuz.

b) Aurreko programaren barruan BDIH KONEXIO linea sartuko dugu: Basque Digital Innovation Hub (BDIH), Konexio, euskal industriei esperimentazio eta testatze-azpiegitura erabiltzeko sarbidea, konexioa eta laguntza teknikoa emateko, bai eta Europako zenbait DIH ere.

Era berean, programak Kudeabideri lotutako kudeaketa aurreratuko jarduketak barne hartzen ditu, enpresen antolaketa- eta kudeaketa-gaitasunak indartzera bideratuak, estrategia, pertsonak, berrikuntza edo emaitzak bezalako funtsezko esparruetan. Izan ere, berrikuntza jasangarriak teknologia ez ezik, hura integratzeko, kudeatzeko eta balio bihurtzeko prestatuta dauden erakundeak ere behar ditu.

2. Berrikuntzaren erosketa publikoa.

Berrikuntzako Erosketa Publikoa (BEP) bultzatzeko plan bat, sektore publikotik berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna sustatzeko tresna gisa, ohiko tresnen osagarri (dirulaguntzak eta pizgarri fiskalak, esaterako), BEPren erabilera gobernuaren kontratazio publikoan tresna arrunt gisa sendotzea helburu duena, eskaintzan zein eskarian ahalik eta eragin handiena izanik.

3. Berrikuntzaren fiskalitatea.

Jarduera berritzailean zerga-pizgarriak aplikatzea bideratzeko ekintzak. Horretarako, berrikuntzaren zerga-kalifikazioari buruzko txostenak egingo ditugu, euskal enpresen berrikuntza- eta aurrerapen teknologikorako gaitasunak eta ahalegina sustatu eta bideratzeko helburuarekin. Era berean, zerga-kenkariak aplikatzean segurtasun juridiko handiagoa emango diete.

2. KUDEAKETA AURRERATUA ETA JASANGARRIA SUSTATZEA

Además del apoyo a proyectos de innovación, el programa refuerza las capacidades de absorción tecnológica de las empresas a través del acompañamiento especializado del Basque Digital Innovation Hub (BDIH), facilitando la identificación, experimentación y validación de tecnologías digitales y sostenibles antes de acometer proyectos de mayor alcance y reduciendo así los riesgos asociados a su adopción.

a) Programa FAST TRACK INNOBIDEAK, orientado a fomentar la innovación de producto y/o proceso en las pymes industriales y de servicios conexos a la industria: apoyando la innovación con avance tecnológico para acelerar el desarrollo, transferencia y llegada al mercado de dichas innovaciones, ofreciendo además un apoyo integral a las actividades de innovación, focalizando en las prioridades estratégicas y combinando el apoyo a proyectos de innovación con acciones complementarias clave.

b) Dentro del programa anterior incluiremos la línea BDIH KONEXIO: Basque Digital Innovation Hub (BDIH), Konexio, para proporcionar a las empresas industriales vascas acceso, conexión y acompañamiento técnico al uso de la infraestructura de experimentación y testeo, así como a determinados DIHs europeos.

Asimismo, incorpora actuaciones de gestión avanzada vinculadas a Kudeabide, orientadas a fortalecer las capacidades organizativas y de gestión de las empresas en ámbitos clave como la estrategia, las personas, la innovación o los resultados, entendiendo que una innovación sostenible requiere no solo tecnología, sino también organizaciones preparadas para integrarla, gestionarla y convertirla en valor.

2. Compra Pública de Innovación.

Un plan de impulso de la Compra Pública de Innovación (CPI) como herramienta para fomentar la innovación y la competitividad empresarial desde el sector público, complementaria a los instrumentos tradicionales (como las subvenciones y los incentivos fiscales), que tiene por objetivo consolidar el uso de la CPI como una herramienta ordinaria en la contratación pública del gobierno maximizando el impacto tanto en la oferta como en la demanda.

3. Fiscalidad de la Innovación.

Acciones para viabilizar la aplicación de incentivos fiscales a la actividad innovadora. Para lo cual emitiremos informes de calificación de innovación a efectos fiscales, cuyo objetivo es incentivar y orientar las capacidades y esfuerzo en innovación con avance tecnológico de las empresas vascas, dotándolas de una mayor seguridad jurídica en la aplicación de deducciones fiscales.

2. PROMOCIÓN DE LA GESTIÓN AVANZADA Y SOSTENIBLE

Industria-enpresetan kudeaketa aurreratuko ereduak sustatzea, lidergo estrategikoa, antolaketa-berrikuntza, pertsonekiko konpromisoa, ingurumen-jasangarritasuna eta gizarte-erantzukizuna sustatuz. Europan gero eta presentzia handiagoa duen lehiakortasunaren ikuspegia ardaztuko duten kudeaketa-ereduak, IGG (ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak) irizpideei dagokienez. Eta, era berean, berrikuntzaren eta aldaketaren eta berrikuntzaren aldeko kulturaren kudeaketa barne har dezala.

1. Berrikuntzaren eta jasangarritasunaren kudeaketa sustatzea.

Berrikuntzaren eta iraunkortasunaren kudeaketa bultzatzeko ekintzak, Kudeaketa Aurreratua sustatuz, enpresak kudeaketan gaitzea lortzeko, lankidetza sustatzeko eta enpresei proiektu berritzaileen inplementazioa errazteko beharrezko gaitasun-mailak emateko. Ildo horretan, Euskalit Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioari laguntza ematen diogu, kudeaketa aurreratuko sistemak ezar daitezen EAEko industria-sarea osatzen duten enpresetan.

Actuaciones que promuevan la adopción de modelos de gestión avanzada en las empresas industriales, promoviendo liderazgo estratégico, innovación organizativa, compromiso con las personas, sostenibilidad ambiental y responsabilidad social. Modelos de gestión que focalicen la visión de una competitividad que cada vez está más presente en Europa en materia de criterios ESG (ambientales, sociales y gobernanza). Y que, asimismo, incorpore la gestión de la innovación y de una cultura favorable al cambio y a la innovación.

1. Fomento de la Gestión de la Innovación y la Sostenibilidad.

Acciones para impulsar la gestión de la innovación y la sostenibilidad, mediante la promoción de la Gestión Avanzada, a fin de lograr la capacitación de las empresas en gestión, fomentar la cooperación y dotar a las mismas de los niveles de competencia necesarios para facilitar la implementación de proyectos innovadores. En esta línea, apoyamos a la Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad Euskalit, con el fin de que se implanten sistemas de gestión avanzada en las empresas que forman el tejido industrial de la CAPV.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. ENPRESEN BERRIKUNTZA-MAILA HANDITZEA		**1. AUMENTO DEL NIVEL INNOVADOR DE LAS EMPRESAS**
Helburua da euskal enpresa gehiago berrikuntzaren mugan kokatzea, bai produktuetan, bai prozesuetan, eta enpresa gehiagok berrikuntza integratzea lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementu gisa.		El objetivo es que más empresas vascas se sitúen en la frontera de la innovación, tanto en productos como en procesos, y que más empresas integren la innovación como un elemento esencial de la mejora de su competitividad.
1. FAST TRACK INNOBIDEAK.		1. FAST TRACK INNOBIDEAK.
Promover proyectos de innovación en producto/servicio y en los procesos del negocio y, asimismo, desarrollar capacidades que les permitan lograr la sistematización de la innovación en sus organizaciones.		Promover proyectos de innovación en producto/servicio y en los procesos del negocio y, asimismo, desarrollar capacidades que les permitan lograr la sistematización de la innovación en sus organizaciones.
a) Berrikuntza proiektuak.		a) Proyectos Innovación.
Aurkeztutako berrikuntza-proiektuen kopurua.	**425**	Número de proyectos de innovación presentados.
Lagundutako berrikuntza-proiektuen kopurua.	**180**	Número de proyectos de innovación apoyados.
Berrikuntza-proiektuak aurkeztu dituzten ETEen kopurua.	**385**	Número de pymes con proyectos de innovación presentadas.
Lagundutako berrikuntza-proiektuak dituzten ETEen kopurua.	**155**	Número de pymes con proyectos de innovación apoyadas.
b) BDIH-Basque Digital Innovation Hub.		b) BDIH-Basque Digital Innovation Hub.
Aurkeztutako BDIH proiektuen kopurua.	**60**	Número de proyectos de BDIH presentados.
Lagundutako BDIH proiektuen kopurua.	**55**	Número de proyectos de BDIH apoyados.
BDIH proiektuak aurkeztu dituzten ETEen kopurua.	**60**	Número de pymes con proyectos de BDIH presentadas.
Lagundutako BDIH proiektuak dituzten ETEen kopurua.	**55**	Número de pymes con proyectos de BDIH apoyadas.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
c) KUDEABIDE-Kudeaketa Aurreratuko Ekintzak.		c) KUDEABIDE-Acciones de gestión avanzada aprobadas.
Aurkeztutako KUDEABIDEko proiektuen kopurua.	**22**	Número de proyectos de KUDEABIDE presentados.
Lagundutako KUDEABIDEko proiektuen kopurua.	**20**	Número de proyectos de KUDEABIDE apoyados.
KUDEABIDEren proiektuak aurkeztu dituzten ETEen kopurua.	**22**	Número de pymes con proyectos de KUDEABIDE presentadas.
KUDEABIDEren proiektuak babestu dituzten ETEen kopurua.	**20**	Número de pymes con proyectos de KUDEABIDE apoyadas.
FAST TRACK INNOBIDEAKi aurkeztutako aurrekontua, guztira.	**MILL110**	Presupuesto Total presentado a FAST TRACK INNOBIDEAK.
Onartutako aurrekontu osoa (eragindako inbertsioa) FAST TRACK INNOBIDEAK.	**MILL60**	Presupuesto total aprobado (inversión inducida) FAST TRACK INNOBIDEAK.
2. Berrikuntzaren erosketa publikoa.		2. Compra Pública de Innovación.
Sektore publikoaren erronkei erantzutea, merkatuan oraindik ez dauden konponbideak garatuz.		Dar respuesta a retos del sector público a través del desarrollo de soluciones que aún no existen en el mercado.
a) Merkatuko aurretiazko kontsulten kopurua.	**1**	a) Número de Consultas Preliminares al Mercado.
b) Sustatutako pleguen kopurua.	**1**	b) Número de Pliegos promovidos.
3. Berrikuntzaren fiskalitatea.		3. Fiscalidad de la Innovación.
Zerga ondorioetarako kalifikazio-txostenak berrikuntza jardueretara zabaltzea.		Ampliar la emisión de informes de calificación a efectos fiscales a actividades de innovación.
Zerga-ondorioetarako berrikuntzako kalifikazio-txostenen kopurua.	**300**	Número de «Informes de calificación de innovación a efectos fiscales» emitidos.
2. KUDEAKETA AURRERATUA ETA JASANGARRIA SUSTATZEA		**2. PROMOCIÓN DE LA GESTIÓN AVANZADA Y SOSTENIBLE**
Berrikuntzaren eta jasangarritasunaren kudeaketa sustatzea.		Fomento de la Gestión de la Innovación y la Sostenibilidad.
Berrikuntza eta lehiakortasun iraunkorra sustatzeko ekintzak, kudeaketa aurreratua sustatuz.		Acciones de fomento de la innovación y la competitividad sostenible a través de la promoción de la gestión avanzada.
a) Erakundeetan egindako Kudeaketa Aurreratuaren kanpoko kontrasteak.	**220**	a) Contrastes externos de Gestión Avanzada realizados en las organizaciones.
b) Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko proiektu pilotuak (2 A fasea). Onartutako proiektuen kopurua.	**55**	b) Proyectos Piloto en Gestión Avanzada, Innovación y Competitividad (Fase 2 A). Número de proyectos aprobados.

PROGRAMA

7311 ENERGIA ETA MEATZE POLITIKA ETA GARAPENA

ARDURADUNA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
INDUSTRIA GARAPEN ETA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZA
DESKARBONIZAZIO ZUZENDARITZA

PROGRAMA

7311 POLÍTICA Y DESARROLLO ENERGÉTICO Y MINERO

RESPONSABLE

INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
DIRECCIÓN DE DESARROLLO Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL
DIRECCIÓN DE DESCARBONIZACIÓN

MEMORIA

1. DESKARBONIZAZIOA

Autonomia energetikoa behar estrategikoa da Europarentzat eta Euskadirentzat errealitate geopolitiko berriaren aurrean. Ildo horretatik, beharrezkoa da gure produkzio-sarean erregai fosilekiko mendekotasunaren murrizketa bizkortzea, eta hori guztia lehiakortasunik galdu gabe, industria ahuldu gabe eta enplegua arriskuan jarri gabe.

Honako hauek dira Deskarbonizazioko Zuzendaritzaren jarduketak arlo horretan baldintzatzen dituzten ardatzak: eraginkortasun energetikoa, elektrifikazioa, energia berriztagarriak eta hidrogeno berdeari eta erregai berriztagarriei lotutako beste azpiegitura batzuk, besteak beste. Halaber, honako tresna hauetan oinarritzen da: otsailaren 21eko 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, eta otsailaren 8ko 1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa. Horiek guztiak Euskadi 2030 Industria Planetik eratorritako jarduketekin garatzen eta osatzen dira.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak jasangarritasun energetikoaren esparru juridikoa ezartzen du, bai EAEko administrazio publikoen eremuan, bai sektore pribatuarenean. Bientzat, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko, eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriak bultzatzera bideratutako betebeharrak eta obligazioak ezartzen ditu.

